

Atxondoko eskolako gurasoak eskualdeko ekoizleekin elkarlanean



Atxondo | Inguruko ekoizleekin elkarlanean, eskualdeko ekoizleen produktuak zuzenean eskoletako familien artean eskaintzen hasi dira Berton Bertokoa dinamikako kideak eta Guraso Elkartekoak. • 4

“Irabaztea behar genuen, eta konfiantza emango digula uste dut”

Jon Galarzak gol bat sartu zuen Durangoko Kulturalak aurtengo liga denboraldian lortutako lehenengo garaipenean.

• 18



Eskuagatzeko koba batean 400 kilo zabor topatu dituzte

Mañaria | Urkiola ingurunean 400 bat kobazulo daude katalogatuta, eta horietako bat garbitu egin dute espeleologoek. Abadiñoako GEMA taldekoak ekintzako partaide izan dira. • 10



4.380 hektarea gorri

Durangaldean 13.192 hektarea hartzen dituzte pinudiek, eta horietatik 4.380 gaixorik daude, gorriturik. Bizkaian gaixotutako pinurik gehien duen eremua da Durangaldea, Jaurilaritzako eta Bizkaiko Aldundiko datuen arabera. • 2-3



Bizkaiko gainerako eskualdeetan moduan, Durangaldean ere gaixotutako pinu dezente dago. Lehior Elorriaga

Bizkaiko basoetan Durangaldeak du gaixotutako pinurik gehien

Pinuen krisia basogintza eredu autoktonoago baterako abiapuntu lez erabili daitekeela uste dute askotariko eragileek

BASOAK • JOSEBA DERTEANO
Euskal Herriko pinuak gaixorik daude. Aurretik ere gaitzak gainditu izan dituzte, baina aurten-goak gogor astindu ditu pinudiak. Basoetara begiratzea nahikoa da gertatzen ari denaren hedaduraz jabetzeko. Diagnostiko horretan ados daude denak, baina horren aurrean hartu beharreko jarreran

iritzi desberdinak entzun daitezke. Erakunde nagusiek hainbat neurri iragarri dituzte egurraren sektorea gidatzen duen eredua —pinuen monolaborantza— salbatzeko. Beste hainbat eragilek, ostera, krisian abagune bat ikusten dute, bide berriak urratzen hasteko aukera bat. Basogintzaren eta zuraren sektoreak Euskadiko Barne Produktu

"Zuraren garrantzia ukaezina da", Eusko Jaurlaritzarentzat eta hiru aldundientzat
Gordinaren %1,5 suposatzen du eta 21.000 enpleguri eragiten die. Eusko Jaurlaritzak eta hiru Aldundiak

adostutako adierazpenean jasotzen diren datuak dira. Lau erakundeen-tzat "zuraren garrantzia ukaezina da" eta "oso ondorio kaltegarriak" eragingo lituzke basogintza jarduera desagertzeak. Beraz, hori ekiditera bideratu dituzte indarrak, gaixotasunak erasaten ez dieten landare motak ekarriz eta kaltetutako basoak sendatzeko fungizidak aztertuz, besteak beste. Azken puntu horretan, oxido kuprosodun tratamendua erabiltzen saiatuko dira. "Ikusi egin behar balio duen", dio Juan Jose Arguinizoniz basojabe berriztarrak tratamenduaren ingu-

alde horretatik ere "oso mugatuta" dagoela dio. "Lursailen kokapenak eta bertako klimak ez dute edozein zuhaitz mota sartzen uzten".

Industria, neurri eske
Egurra zerrategietara eta paper-gintzara bideratzen duen Central Forestaleko zuzendaria da Kepa Albizu, eta baita basojabeak eta industria batzen dituen Baskegur erakundeko idazkaria ere. Azaldu

Kepa Albizu: "Pinuak aldaketa klimatikoaren aurka borrokatzen laguntzen du"

Keko Alonso: "Oso eredu produktiboa da epe laburrean, baina epe ertainean ezegonkorra"

du gaixotasuna 1942an detektatu zela Euskal Herrian, baina azken urteetan txarrera egin duela, batez ere azken urtean. Epeltasuna eta hezetasuna dira horren errudun. Egoerari aurre egiteko, Zeelanda Berrikoen esperientziari jarraitzea proposatu dute industrietatik, oxido kuprosoa erabiltzea. "Hau geratu egin behar da. Bestela, arazo larria izango da eta ez bakarrik basojabe eta industriarentzat, baita gizartearentzat ere. Izan ere, pinuak edukitzeak karbono dioxidoa gorde eta aldaketa klimatikoaren aurka borrokatzen laguntzen du", esan du.

Arduratuta egon arren, merkatuan ez dute aldaketarik igarri. "Momentu honetan ez dugu eragirik ikusten. Sikatuta dauden basoei irtenbidea eman beharko zaie, eta sano daudenak geroko utzi. Hemen-dik martxora gaixotasuna ez da gehiagora joango, eta orduan, tratamendua ematean, ikusi beharko da kapaz izan garen geratzeko. Bota behar direnak bota, pinu barietate erresistenteagoak landatu..."

Basogintza eredua, ezbaian
Kolore Guztietako Basoak plataformako Keko Alonsoren esanetan, monolaborantzan oinarritutako ereduak lurzorua ahuldu du eta mineraletan gero eta pobregoa da. Ondorioz, pinuak gero eta ahulagoak direla dio. "Oso eredu produktiboa da epe laburrean, baina epe ertainean, ezegonkorra", gehitu du.

EH Bilduko alkateek prentsaurrekoa eskaini dute euren kezka adierazteko. "Zuhaitz ahulez jositako lurraldea, eta horregatik sartu dira gaixotasunak horren erraz", esan dute. Errentagarritasuna eta jasangarritasuna uztartzeko eredua proposatu dute. EH Bildu agintean dagoen udalerrietan, "lurren erosketa publikoari ekiteko neurriak martxan jartzen" ari dira.

BASOGINTZA BIZKAIAN

- Bizkaiko lurren **%60** basoak dira.
- Basoko zuhaitzen kopurua hektareatan:
 - Radiata pinua: 67.429
 - Eukalipto: 17.000
- Basoen **%74,5** pinuz edo eukaliptoz osatuta daude.

BIZKAIKO BASOEN EGOERA

- DURANGALDEA.**
 - Pinu hektareak: 13.192
 - Gaixotuta: 4.380 (%33,20)
- GERNIKA-BERMEO:**
 - Pinu hektareak: 10.544
 - Gaixotuta: 3.561 (%33,77)
- ENKANTERRIAK:**
 - Pinu hektareak: 11.461
 - Gaixotuta: 2.541 (%22,17)
- ARRATIA-NERBIOI:**
 - Pinu hektareak: 15.829
 - Gaixotuta: 3.591 (%22,69)
- BILBO HANDIA:**
 - Pinu hektareak: 3.744
 - Gaixotuta: 995 (%26,58)
- MARKINA-ONDARROA:**
 - Pinu hektareak: 11.169
 - Gaixotuta: 3.967 (%35,52)
- PLENTZIA-MUNGIA:**
 - Pinu hektareak: 1.491
 - Gaixotuta: 451 (%30,26)



HURBILEAN • MARKEL ONAINDIA

Mendi ingeniarietza ikasi du eta Basoa fundazioko lehendakariordea da gaur egun Aitor Onaindia Bereziartua (Durango, 1976). Pinuaren krisia aztertzeako instituzioen artean sortutako mahaian parte hartzen du iaztik.

Posible al da gaixo dagoen pinuaren egurra saltzea?

Arazorik barik komertzializatu daiteke, eta argi utzi digute ministeriotik ere. Izan ere, hostoa da gaixorik dagoena, ez egurra. Uda-berrian, orri berdearen gainean kobre oxidoa botatzen badugu, urte horretan ez da kutsatuko. Gaixotasuna beti egongo da, baina kontrol baten barruan, eta landareari garatzen lagunduko diogu.

Baina, ezin da ukatu kezka sortu dela basojabeen artean...

Prentsak horrenbesteko alarma sortu du, basojabeek arbolak kolpean bota gura dituztela. Baina, noski, bat-batean eskaintza itzelean handitzen bada, prezioa asko bajatuko da. Industriak ere esana

du ez dela komeni. 5 urte barru zer pinu edukiko duzu?

Askok diote pinua bertako arbolekin ordezkatzeko unea dela.

Europako beste herrialde askogaz alderatuta dugun abantaila da, hazkunde azkarreko espezieak sartu ditzakegula. Aukera hori

“

Askok uste dute Euskal Herria Irati lako baso handi bat zela, baina ez da egia”

—

edukita, ezetz esatea gogorra da. Gainera, Euskal Herrian 20.000 lanpostu daude honen bueltan. Askok uste dute hau Irati lako baso handi bat zela, baina ez da egia. XIX. mende amaieran, lur ia guztia nekazaritzarako geneukan, eta XX. mendera ia arbolarik barik heldu ginen. Basoa barik, dehesa

estiloko bat zen. Industrializazioa heltzean, lur asko funtziorik barik geratu ziren eta hazkunde azkarreko arbolekin aukera bat ikusi zen. Etorkizunean bioekonomian oinarritutako eredu bat gura badugu, ez da une egokia pinudi guztiak moztu eta bertako espezieei itxaroteko. Hori egitekotan, gradualki garatu beharko litzateke.

Zergatik diozu bioekonomiarena?

Europar, egurra sortzeko lekurik produktiboenetarikoa da Euskal Herria. Egurraren %70 bertan transformatzen dugu eta lana eta ekonomia sortzen dira. Baina azken pausoa falta da: gure beharrianak egur horregaz kubritzea. Arropak egur zuntzez egindakoak izan ahalko lirateke, baina kanpoko kotoia darabilgu; beroa biomasa-gaz lortu ahalko genuke, baina Durangoko igerilekuak gasoilagaz dabilta, udalak herri-basoak badiu ere. Mañariko harrobietatik harria ateratzen dugu, baina ez da birsortuko, ez da berriztagarria. Egurra bai, eta horretara menpekotu beharko ginateke.

“Ez da une egokia pinudi guztiak moztu eta bertako espezieei itxaroteko”

Pinuaren balioa nabarmendu du Onaindiak eta kobre oxidoak sektoreari eusten lagunduko diola dio

“Europar kalitatezko egurraren eskaria eskaintza baino handiagoa da”

Inor zapaldu barik, pinuen gaurko egoerak beste basogintza eredu bati atea zabaltzeko abagunea eskaintzen duela uste dute Kolore Guztietako Basoak plataformako kideek

HURBILEAN • JOSEBA DERTEANO

Lurra eta zuhaitza lotuta daude. Elkar elikatzen dute, mendeetan garatutako orekagaz. Pinuen monolaborantza oreka hori hausten ari dela eta lurraren kalitatea pobretu duela uste dute Kolore Guztietako Basoak plataformako kideek. Beste eredu bat posible ikusten dute eta bide hori urratzen hasteko abagunea dela defendatzen dute. Keko Alonso plataforma horretako biologoa da.

Beste basogintza eredu bat proposatzen duzue. Zertan datza?

Lehenengo eta behin, kontu bat argi utzi gura dut: gure helburua

ez da monolaborantzaren ereduari di-da amaiera ematea. Gure diskurtsoak askotariko sektoreetako adostasuna duela uste dut eta honako hau da: mendia dibertsifikatzeko beharra, kontserbazio basoekin eta silbikultura teknika bidezko baso naturalekin, adibi-

“

Mendia dibertsifikatzeko beharra dago; helburua ez da monolaborantzari di-da amaiera ematea”

—

dez. Kontserbazio basoak ez dira moztetara bideratuak, baina beste era batera atera dakieke errentagarritasuna; aisialdiari lotutako ekintzekin, esaterako. Zuhaitz autoktonoak hastea, kalitate handiagoko egurra sortzea eta une bakoitzean behar dena botatzea da beste aukera. Bigarren mailako kalitatea duen egurra beharrian, lehenengo mailakoa lortuko litzateke, balio erantsi handiagoa duena. Europar kalitate horretako egurraren eskaria eskaintza baino handiagoa da. Errentagarria da ekoizleentzat. Egur honen balioa zein egur horregaz ekoiztutako produktuarena askoz handiagoak



direnez, arraseko mozketa ekidin daiteke.

Beraz, baso mota denen arteko banaketa egokiagoa da zuek proposatzen duzuen?

Bai. Begira, azkenean sentsibilitate askotako jendea dago. Hiriko eta herriguneetako jendea gogoratu gura diot, gaurko ereduak beste autoktonoago eta jasangarriago batengatik ordezkatu gura dugun arren, lurraren %75 pribatua dela

eta gaur egungo ereduak familia askoren errenta osatzeko balio izan duela urte askoan. Hori kontuan hartu beharreko alderdia da. Baserri eremuko jendea esango nioke inor ez datorrela ezer debekatzerara. Interesa dutenekin gure proposamena euren lurretan lantzea gustatuko litzaziguke eta denon artean beste eredu bat posible dela ikusarazi gura diegu erakundeei.

Pinudietan bota gura duten oxido kuprosodun tratamenduak aldeko eta kontrako iritzia eragin du

TRATAMENDUA • JOSEBA DERTEANO

Jaurlaritzak eta hiru Aldundiek eskainitako prentsaurreko bate-ratuan iragarri zuten: pinudiak sendatzeko, oxido kuprosodun aire bidezko tratamendua probatu gura dute 2019ko udaberrian, eta, horre-

tarako, baimen eskaera egin dute Espainiako ministerioan.

Ekologistak Martxan elkarteak gogor kritikatu du erabakia. "Ingurumenaren kontrako atentatua" litzatekeela adierazi dute ohar batean. "Fumigatutako eremuaren

ondoan dauden errekek eta akuife-roak kutsatuko ditu", gehitu dute.

Pinudietatik gertu, larreak, ortuak eta baserriak daude. Horregatik, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilutik (ENEK) "arduratuta" daudela adierazi dute. "Tratamenduaren inguruko azalpen gehiago behar dira. Arduratuta gaude aurrekariak txarrak direlako", diote. Izan ere, pinu-beldarraren kontrako tratamenduak bota dituztenetan, kutsadura ortuetara heldu dela diote. "Pare bat

kasu dokumentatuta eta Aldundiak onartuta daude. "Kasuetako bat Atxondon izan zen", azaldu dute ENEK-etik.

Aldiz, Basoa Fundazioko lehendakariorde Aitor Onaindiren ustez,

Ekologistak Martxan-en esanetan, tratamendua "ingurumenaren kontrako atentatua" da

Zeelanda Berrian "emaitza onak" eman dituen tratamendua da eta hango adituen laguntzagaz eramango da aurrera hemen. Uraren kutsadurari dagokionez, "Zeelanda Berrian 60 urtean sekula ez dute arazorik eduki, oxido kuprosoa ez delako uretan ondo disolbatzen eta, beraz, ez du urak eramaten". Gainera, "dosi txikietan" erabiliko da. Hegazkinez beharrian, tratamendua "helikopteroz edo dronekin" botatzea egokiagoa dela diote, haizeak barreiatu ez dezan.

Atxondoko eskolako familiak eskualdeko ekoizleen produktuak dastatzen dabiltza Berton Bertokoari esker

Ikasturte berriagaz batera martxan jarri duten ekimena hamabostero egitea gura dute Berton Bertokoako kideek



Abadiñoako Sasipeko Uztak-en eskutik ogi ekologikoa dastatu dute.



Estakua jogurtak probatzeko aukera ere izan dute.

etxean ganorazko jatekoa eskaintzen ahaleginduko gara", adierazi du Alex Azpiri Berton Bertokoako ekimeneko kideak.

Lehenengo eskaria orain aste bi egin zuten eskolako gurasoek.

Eskolako familien artean ere elikadura osasuntsu bat bultzatu gura dute ekimeneko kideek

Mallabiko Estakua jogurtak eta Abadiñoako ogi ekologikoa dastatu dituzte azken asteotan

Orduan, Mallabiko Estakua jogurtak dastatzeko aukera izan zuten familiek. Eta joan zen astean, Abadiñoako Sasipeko Uztak-en ogi ekologikoa dastatu zuten. "Ekimenak harrera oso ona izan du eskolan, eta ekoizleak ere oso pozik daudelakoan gaude", jarraitu du Azpirik.

Eskariak hamabostero egitea da ekimen honen bultzatzaileen asmoa. "Eskaria astelehenetan egingen dugu eta eguazten egunerako ditugu produktuak etxean", azaldu du Berton Bertokoako kideak.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Ikasturte berriagaz batera, Atxondoko Ikasleen Guraso Elkarteak eta Berton Bertokoako dinamikako kideek beste ekimen bat jarri dute martxan herrian. Inguruko ekoiz-

leekin elkarlanean, eskualdeko ekoizleen produktuak zuzenean eskoletako familien artean saltzen hasi dira. Ekimeneko sustatzaileen helburua bertako produktuak bultzatzea eta bertako ekoizleei la-

Bertako produktuak bultzatzea eta bertako ekoizleei laguntza ematea da helburua

guntza ematea da, eta baita familien artean elikadura osasuntsua bultzatzea ere. "Eskolako jantokian sukaldariek ez dagoela da gure arazoa. Beraz, gure umeei ezin dute ganorazko jatekoa jan. Orduan,

Kataluniako jantokiaren gestio deszentralizatua ezagutzeko bidaian egon da Berton Bertokoako

Katalunian tokiko administrazioek, ikastetxeek eta guraso elkarteek kudeatu dezakete eskolako jantokia; Euskal Herrian ere erabaki ahalmen hori lortu gura dute

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Erkidegoan bestelako jantoki ere du baten alde lanean dabilen Gure Platera Gure Aukera mugimenduko zortzi ordezkari Katalunian izan dira, jantokiaren gestio deszentralizatua ezagutzeko. Tokiko administrazioek, ikastetxeek eta guraso elkarteek kudeatu dezakete. Hemen ere, erabaki ahalmen hori lortu gura dute. Isa Gonzalez izan da ordezkarietako bat, Durangoko

Euskal Herrian eskolen %30ek dute sukaldea, eta Katalunian %70ek

Zabalarra eskolako gurasoa eta Berton Bertokoako dinamikakoa.

Gonzalezen esanetan, hainbat "praktika on" ikusi dituzte. Adibi-

dez, hemen eskolen %30ek dute sukaldea, eta han, oster, %70ek. Jantokia zerbitzu bat baino gehiago dela dio. "Eguerdiko denbora deitzen diote. Pedagogia egiten dute jatekoagaz". Ekozentral izeneko instalazio bat ere ezagutu dute, bitartekaririk barik nekazariak eskoletara produktuak saltzeko balio duena. Horri esker, produktu ekologikoak ez dira karuago irten, Gonzalezen arabera.



Berton Bertokoako dinamikako kideak Katalunian.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko azaroaren 2a
16. urtea - 740. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Itxaso Martinez de Arenaza Yarza.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi eta Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Iaz 18.000 bisitari jasota, turismoa etenik barik hazten doa Durangon

Azaroko zapatuetan doako bisita gidatuak eskainiko dituzte udalak eta Gerediagak



Kurutzesantuko Turismo Bulegoan egin zuten bisiten aurkezpena, astelehenean.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Iaz 18.000 bisitari jaso zituen Durangok, eta etenik barik hazten doan turismoari begira beste ekimen bat sortu dute udalak eta Gerediaga elkarteak elkarlanean. Azaroko zapatuetan doako bisitak egingo dituzte herriko ondarea ezagutzeko. Iaztik, urtean zazpi bisita antolatzen ditu Gerediagak Turismo Bulegorako; horietako hiru eskainiko dituzte doan azaroan.

Bihar izango da lehena, ingelesez, eta argazki zaharren bidez herriko historian murgilduko dira

10ean antolakuntza arkitektonikoa izango dute berbagai, Santa Anako dorretik ikusita

Bihar izango da lehena, ingelesez, eta argazki zaharren bidez herriko historian murgilduko dira. Hilaren 10ean antolakuntza arkitektonikoa izango dute berbagai, euskaraz, Santa Anako dorretik ikusita. 17an argazki zaharrena errepikatuko dute, gaztelaniaz, eta 24an Andra Mariko basilika izango dute ardatz, euskaraz.



Geltokirako Ezkurdiko sarbidea zabalik dago berriro, baina itoginak agertu dira

DURANGO • M.O.

Durangoko tren geltokirako Ezkurdiko sarbidea zabalik dago, berau hobetzeko eta estaltzeko lanak hilabetetan zehar egin eta gero. Baina, zabaldu eta berehala, itoginak agertu dira. Ion Andoni del Amo (EH Bildu) zinegotziak egoera salatu du sare sozialetan. "Inauguratu berria eta guardasola erabili behar. Eta oraindik aldapak eta eskailerak. Durangarrok geltoki duin bat merezi dugu". ETSk aitortu du leihoak guztiz zigilatu barik zeudela zabaldu duela sarbidea.

Datorren osoko bilkuran, itoginak konpontzea eskatuko du EH Bilduk, eta baita eskailera mekanikoak jartzea ere.

Herriaren Eskubidea 2019ko hauteskundeetarako programa lantzen hasi da, partaidetza sustatuta

Martitzenean batzar zabal bat egin zuten eta Julian Riosek esan du "balantze oso positiboa" egin dutela

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

2019ko hauteskundeetarako programa garatzeko asmoz, batzar zabala antolatu zuen Herriaren Eskubideak martitzenean, *Durango Aurrera* lemapean. Datozen hileetan ere beste batzar batzuk egingo dituzte, herritarren partaidetza sustatzeko asmoz. Julian Riosek azaldu du "balantze oso positiboa" egin dutela martitzeneko batzarraz, eta gazteen parte-hartzea

Julian Rios: "Parte hartzeko eta erabakiak hartzeko espazio zabal bat da"

nabarmendu du, batzuk euren batzarretara orain arte agertu baakoak zirelako. "Emozionatu egin ninduen 20 bat urteko bost gazte ideiak kriterioz proposatzen eta hausnartzen egon izanak. Diote gazteak ez direla politikoki inplika-

tzen, baina ez da horrela", esplikatu du Rios zinegotziak.

2015ean Herriaren Eskubideako alkategai izan zenak dio zerrenda eta programa horrelako batzarretan osatzen joan direla. "Parte

hartzeko eta erabakiak hartzeko espazio zabal bat da. Orain artekoek gain, jende berria egongo da, eta aktiboki parte hartzeko aukera edukiko dute". Horrez gainera, alderdiaren erabakiak Durangon

hartuko direla azpimarratu gura izan du. "Subiranotasuna Durangon egongo da. Durangoko erabaki guztiak Durangon hartuko dira". Bestalde, internet eta telefono bidez ere jasoko dituzte proposamenak.



Pinondo Etxean egin zuten martitzeneko batzarra. Julian Rios

MTV katearen jaialdian diru publikoa "xahutu" izana salatu dute

DURANGO • M.O.

MTV kateak Bizkaian antolatutako musika asteko jaialdie-tako bat Durangon izan zen martitzenean. Antolatzaileen arabera, 5.000 lagun pasatu ziren Landako Gunetik; Mala

MTV kateak Bizkaian antolatutako musika asteko jaialdietako bat Durangon izan zen

Rodriguez zen izarra, eta 1.000 lagun inguru zeuden orduan.

Aldundiak 3 milioi euro inbertitu ditu ekimenen, eta kritikak ekarri ditu. Julian Rio-senak (Herriaren Eskubidea), adibidez: "MTVren kontzertuak Durangon, eta kasik hutsik. 3 milioi euro. Edari alkoholikoen promozioa. Hori guztia diru publikoagaz sustatuta". Ernaik ere diru publikoa "xahutu" izana salatu eta "MTV sexismoaren eta inperialismoaren bultzatzaile" dela ohartarazi du.

Zaldibarrera bizitzera doazen kanpoko lagunei erraztasunak eman gura dizkie udalak

Hizkuntzak garrantzi handia du harrera protokoloan, izan ere, bertako hizkuntzara hurbiltzera gonbidatu gura dituzte

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Martitzenaz geroztik, martxan dago Zaldibarko harrera protokoloa, bertara bizitzera doan jendeari herrian integratzea errazteko. "Zaldibarrera datozen pertsonak bertan geratzea gura dugu. Bertako hizkuntza ikastea eta bertako bizitzan parte hartzea da protokolo honen helburua", adierazi du Eneritz Azpitarte alkateak. Erroldatu ostean, protokoloaren euskarri ga-

Protokoloaren garapenean hainbat elkarteek parte hartu dute udalagaz elkarlanean

rrantzitsuenetakoa den harrera gida banatuko zaio herritarrari; zazpi hizkuntzatan kaleratu da gida. Harrera Elkartegaz harremanetan jartzea ahalbidetuko diete gero.

Protokoloaren garapena udalaren eta herriko taldeen arteko elkarlanetik dator. Zaldibarko ikastetxeak, gaztelekuak, gaztetxeak,



Eneritz Azpitarte Zaldibarko alkatea harrera protokoloan parte hartu duten zenbait eragileren ordezkariarekin batera.

Caritasek, nagusien elkarteak, guraso elkarteak, Olazar gimnasia erritmiko taldeak eta Zaldibarko Jendeak elkarteek parte hartu dute protokoloaren lanketan, udalagaz batera elkarlanean.

Otxandion eta Elorrion ere harrera protokoloak dituzte, herrira bizitzera doazenei laguntzeko

Otxandioko aurrekaria

Harrera protokoloaren moduko esperientziak eskualdeko beste hainbat herritan izan dira. Otxandion (2016an) eta Elorrion (2017an), adibidez, martxan daude.

'Zaldibart' ekimena hasiko dute, herriko artisten lana ikusgarri egiteko

ZALDIBAR • MARKEL ONAINDIA

Zaldibarko Udalak bultzatuta, Zaldibart izeneko ekimena hasiko dute bihar, herriko artisten lana ikusgarri egiteko asmoz. Hilean behin, sortzaile zaldibartar batek erakustaldi bat eskainiko du kalean, jendaurrean. Bihar, Javi Olmo zeramikiariak egingo du zikloaren estreinaldia, 18:30 aldean, udaletxean.

Olmok makina bat urte daramatza zeramika lantzen, afizioz. Ondo baloratu du udalaren ekimena. "Lehendik ere sortzaile batzuen artean komentatu izan dugun gauza bat da. Udalak iniziatiba hartu du eta ondo iruditzen zait", adierazi du. Bihar performance bat aurkeztuko du Elsa Novellegaz batera, Surami-Kizenekoa, eta, horren bidez, zeramikari era bisual batean balioa ematea da helburua. Horretarako, labeategaz egingo dituzte piezak. Picassoren Gernika koadroa oinarri hartuta, 1937ko sarraskiaren isla izango diren elementuak sortzen joango dira.

Zornotzan Nafarroa zentroko bigarren solairu osoa erabarritu dute, 1,1 milioi euroko inbertsioa eginda

Guztira, 1.260 metro koadro ditu bigarren solairuko lanak amaituta; azaroan beheko solairuan hasiko dira lanean

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Nafarroa zentroa eraberritzen dabil udala, faseka. Azpiegiturak berritzen (argia, bero sistema...) eta espazioa berrantolatzen dabilta, besteak beste. Urrian, bigarren solairuko lanak amaitu dituzte. Fase bitan gauzatu dituzte lanak, eta 1,1 milioi euroko inbertsioa egin dute.

Batetik, gela bi zerbitzu berria eskaintzeko erabili dituzte: dependentsia maila baxua dutenentzako

Gela bi dependentsia maila baxua dutenei eguneko zentroa eskaintzeko erabili dira

Toki bat egokitu dute aniztasun funtzionala dutenekin diharduten eragileek erabiltzeko

eguneko zentrorako. Mahaiak, aulkiak, besaulkiak, telebista eta beste hainbat gauza jarri dituzte bertan. 10 adinekorentzako tokia du eta, momentuz, zazpi daude. Bestetik, toki bat egokitu dute aniztasun

funtzionala dutenekin lan egiten duten askotariko elkarte, ikastetxe eta eragileek erabiltzeko; 630 metro koadrori eragiten dio horrek. Gela multisentsoriala da eraberritu duten tokietako bat.

Azaroan, beheko solairua

Bigarren solairuko lanak amaituta, azaroan behe solairuko espazio zati bat eraberritzen hasiko dira: 100 bat metro koadro ditu eta 42.000 euroko inbertsioa izango da.



Andoni Agirrebeitia alkatea eta Begoña Nazabal Gizarte Ekintza Saileko arduraduna eraberritu duten gela multisentsorialean.



Parabellumek eta Gatillazok Luis Urrengoetxea kaleko jaietan joko dute

ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI

Pintxo poteagaz hasiko dituzte Luis Urrengoetxea kaleko jaiak, azaroaren 8an. Lutaber tabernari elkartearen eskutik, jai giroz bustiko dira kale bazterrak.

Azaroaren 10ean batu dituzte ekitaldirik gehienak. Zumba saioa eta trikitilariak egongo dira, eta sukalki txapelketa ere bai. Arratsalde parteia Elektro Buiaka elektrotxararak giro-tuko du. Gauean, 80ko hamarkadako talde bik joko dute: Parabellumek eta Gatillazok. Hilaren 9an, besteak beste, txistulariak eta kontzertu bat egongo dira, eta hilaren 11n, Ba zen behin... kontu kontalaria Xanti Ledesmagaz.

Azaroaren 25eko Indarkeria Matxistaren kontrako Nazioarteko Egunaren harira, egitarau zabala antolatu dute Elorrión. Egitarauari batzar feministaategaz emango diote hasiera, astelehenean. Azaroaren 8rako, berriz, ume eta nerabeenganako indarkeria matxistari buruzko jardunaldiak antolatu dituzte. Jardunaldi hauetan Aitziber Bañuelosek parte hartuko du, Erakiz kolektiboko kideak.

Bai, eta guk horietako hiru jorratuko ditugu. Lehenengo kasua adingabeokak beraien aitak amari

“Ume eta nerabe hauei tratu txarra ematen dietenak euren gurasoak, senideak eta euren kargu dauden tutoreak izaten dira”

Ume eta nerabeenganako indarkeria matxistari buruzko jardunaldiak antolatu ditu Elorrioko Udalak azaroaren 8rako



Aitziber Bañuelos
Ganuza
Eraikiz kolektiboko
kidea
Bilbo

Azkenaldian gizartean gaztetxo hauen errealitatea agerian jartzen ari den arren, esparru batzuetan

Eta adinez nagusiak diren pertso-
nen menpekoak diren heinean,
normalean ume eta nerabe hauei

**Gaztetxo hauen
egoerak esparru
batzuetan gordeta
daude oraindik,
ikusezinak dira”**

tratu txarra ematen dietenak euren gurasoak, senideak eta euren kargu dauden tutoreak izaten dira. Hau da, umeek, normalean, adinez nagusiak direnengandik jasotzen dituzte tratu trarrak. Gainera, adintxikikoez zenbait testuinguru eta arrazoiengatik jasaten dituzte erasoak. Baina kalteberatasun faktore bat partekatzen dute denek: adinez nagusiak diren pertsonen ardura-pean dauden umeak dira.

ELORRIO

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA

ASTELEHENA	Asanblada feminista: Azaroak 25, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna. Zer egingo dugu Elorrixon?
OSTEGUNA Goiz/arratsalde	Umeen eta nerabeenganako indarkeria matxistari buruzko jardunaldia
OSTEGUNA	"Kabi Biluziak" dokumentala eta mahai-ingurua Euskeraz Iturri Kultur Etxea
OSTEGUNA	"Futbolariak eta printzesak" antzezlan. Zuzendaria: Galder Perez Ikastetxetako LHko 3. eta 4. mailako ikasleentzat. Umeei ezarritako genero-estereotipoak eztaba
OSTEGUNA 16:00	"Una mujer fantástica", film didaktikoa. Elorri L. Iturri Kultur Et
LARUBATA Egun osoa	Beldur Barik Topaketa Gasteizen Gazteentzako tailerrak, musika, sariak eta jolasak (www.beldurbarik.eus) Elorriotik busak doan Izena emateko: berdintasuna@elorrio.eus / 94 6570809 / Udaletxean
IGANDEA 13:00	Kontzentrazioa: indarkeria matxistari ez!



**EMAKUMEENGANAKO
INDARKERIAREN
KONTRAKO NAZIOARTEKO
EGUNA 2018**

Umeek jasaten duten indarkeria matxista anitza da: homofobikoa, sexuala, fisiko, transfobikoa... lkerketen arabera, bortizkeria hori ezkutuan dago eta hurbileko ezagunek nagusiki, eragindakoa da. Horri buruz hitz egiteko, adituak eta profesionalak gonbidatu ditugu

AZAROAK 08	JARDUNALDIA
09:00-13:00 Iturri Kultur Etxean	UME ETA NERABEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTA
Tailerra	Arazoaren kokapena, tipologiak, ezaugarriak, kolektiboak, prebentzioa, detekzioa eta esku-hartzea, babeserako programak eta errektursoak.
Jasotzaileak	Ume eta nerabeekin lan egiten dutenak: irakasleak, begiraleak, entrenatzaileak... eta prebentzioan eta arretan aritzen direnak: gizarte-langileak, udaltzaileak, berdintasunerako teknikaria, osasuneko profesionalak...
Dinamizatzaileak	Eraikiz Kolektiboa - Hizkuntza: erderaz
Izena emateko	Azken eguna Arazoaren 6a - berdintasuna@elorrio.eus / 94 6570809 / Udaletxean PLAZA MUGATUAKI!
17:30-18:00 Iturri Kultur Etxean	IXILTASUNA APURTUZ ESPOSAKETA
Bisita gidatua	Ume eta nerabeen kontrako sexu-erasoei buruzko sinesmen okerrak landuko dira, hile osoan egongo diren esposaketaren 13 panel azalduz
18:30-20:30 Iturri Kultur Etxean	ELORRION UME ETA NERABEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARI 0 TOLERANTZIA
Mahai-ingurua	Mahai-inguru honekin arazo honen inguruan herri-kontzientzia piztu nahi dugun guztion erantzukizuna arazotuz.

"Gaztelaniak Abadiñon duen indarra" iraultzeko helburuagaz aurkeztu dute Euskaraldia

Ahobizi eta Belarriprest moduan izena emateko epea zabalik dago Abadiñon; txapak hilaren 16an hartu ahalko dira



Familia argazkia Abadiñoan aurkezpenean. ZALOA FUERTES.

DURANGALDEA • A.M.

Lau abadiñarretik hiruk euskara ulertzen dute, eta, horregatik, euskaraz bizitzeko aukerak biderkatzea gura dute Euskaraldiaren sustatzaileek. "Abadiñon euskara ulertzen duen jendea pentsatzen duguna baino gehiago delako, hizkuntza ohiturak aldatzeko aukera hau baliatu behar dugu guztion ar-

tean", adierazi zuten urriaren 31ko aurkezpenean.

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo den Euskaraldiaren helburu nagusia hizkuntza ohituraren eragitea da, hain zuzen ere. Horretarako, Ahobizi eta Belarriprest figurak indartzea gura dute ekimenaren sustatzaileek, eta abadiñarren konpromisoa eskatu dute.

Izena emateko epea zabalik dago. Euskaraldian Ahobizi eta Belarriprest izateko konpromisoa hartu duten lagunek txapa bat eramango

dute soinean, identifikagarri legez. Abadiñon hilaren 16an banatuko dituzte txapa horiek.

Elorrioko ekitaldia

Elorrioren ostera, azaroaren 7an banatuko dituzte, Arriolan egingo den ekitaldian bertan. '2+2 ez dira beti 4' deituko da ekitaldia, eta 19:00etan hasiko da.

Azaroraren 7an, '2+2 ez dira beti 4' deituriko ekitaldia egingo dute Elorrioren

Udal gobernuak ez du onartu herritarrek OHZren inguruan aurkezturiko mozioa

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

OHZren tipoa jaistea eskatzeko 1.400 lagunaren sinadura bildu ostean, mozioa sartu zuten Abadiñoako Udalean hainbat bizilagunek. Martitzenean egin zuten urriko osoko bilkuran, mozioak ez zuen aurrera egiteko beharrezko babesak lortu. EH Bilduk baino ez zuen bozkatu alde; Abadiñoako Independienteek eta EAJk ekimenaren aurka bozkatu zuten. Udaletxeko aretoa bete zuten herritarrek

1.400 herritarren sinaduraren babesagaz sartu zuen herritar talde batek mozioa udalean

martitzenean, eta hainbat bider galdetu zuten ea zein den "zerga hain altu mantentzearen" arrazoiak.

Jose Luis Navarro alkatearen berbetan, baina, zergaren tipoa bere horretan mantentzea da erabakirik egokiena.

"Datu historikoa"

EH Bilduren berbetan, 1.400 sinadura aurkeztea "datu historikoa" da eta herritarrek gaiarekiko duten "haserrea eta kezka maila" adierazten du.

Nikolas Alzola Gerediaga 'Bitaño' margolari eta idazle izurtzarra gogoratzeko, ekitaldi sorta antolatu dute

Martitzenean, Alzolaren margolanekin osatutako erakusketa inauguratu zuten Durangoko Arte eta Historia Museoan

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Nikolas Alzola Gerediaga 'Bitaño' (1922-1982) idazle, euskaltzale eta margolari izurtzarraren sormen lanaren balioa azpimarratzeko, ekitaldi sorta bati hasiera eman dion erakusketa abiatu zuten martitze-

Liburua azaroaren 9an aurkeztuko dute eta ibilbide literarioa azaroaren 11n izango da

nean Durangon. Durangaldeko paisaiaren gaineko 36 akuarela dira, batzuk bera jaio zen Tontorra baserriari buruzkoak. Arte abstraktuan egindako saiakera erakusten duten hiru koadro ere gehitu dituzte.

Liburua eta ibilbidea

Hurrengo ekitaldi biak Izurtzan izango dira, bere sorterrian. Azaroaren 9an, 19:00etan, *Mugarrapetik kontu kontari*; *Esku bete atal* liburua aurkeztuko dute Izurtzako elizan. Alzolak idatzitako ipuinak jaso dituzte liburuan, berak egindako marrazki batzuekin lagunduta. Antton Mari Aldekoa-Otalora, Xabier Boveda, Alberto Errazti eta Sebastian Gartzia dira egileak.

Azkenik, azaroaren 11ko domekan ibilbide literario bat egingo dute Izurtzan. 09:00etan abiatuko da, plazatik. Alzolak Izurtzan kokatu zituen bere ipuin asko (Bekotorren, Santa Ageda ermitan, Etxaburudorrean, Tontorra baserrian...) eta euretatik zehar antolatu dute ibilbidea.



Antton Mari Aldekoa-Otalora, Martin Lasa eta Jose Julian Bakedano erakusketa aurkezten.

Eskola inguruko bideetan oinezkoek izango dute lehentasuna

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Oinezkoen lehentasuna azpimarratzeko, Andresa Landa eta Antonbenta inguruetakoko bideetan aldaketak egin dituzte. Bidea espaloiairen parera igo eta plataforma bakarra sortu dute, eta dena asfalto inprimatuagaz estali dute. Zonalde bi horiek eskolarako bideak dira eta umeak askotan ibiltzen dira handik ikastetxerako joan-etorrietan. Autoen abiadura gutxitzeko neurriekin oinezkoen segurtasuna handitzea da helburua.

Aurretik, Letxeriako bidegurutze inguruan ere antzerako lanak egin zituzten. Asfalto inprimatua bota eta eremu osoa plataforma bakarrera ekarri zuten, oinezkoek lehentasuna zutela azpimarratzeko.



GAURSA

CAR WASH



PREMIUM GARBIKETA TUNELA
AUTOZERBITZU GARBIKETA-BOX ETA XURGAGAILUA



Arriandi Auzoa, 12 lurreta (Bizkaia) Renault eta Nissan Gaurisa instalazioetan

Ekologiko lez izendatutako ibilgailuek %50eko hobaria izango dute

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Laugarren urtez, bere horretan utziko dituzte zerga eta tasak Iurretan datorren urtean. Aldaketa bi baino ez dira egongo 2019ari begira. Batetik, ibilgailuen gaineko zergan, %50eko hobaria izango dute ekologiko lez izendatutako ibilgailuek: bai ibilgailu elektrikoek bai propulsiomotor hibridoak dutenek, energia elektrikoa eta erregeia konbinatzen dutenek.

Bestetik, trafiko eta aparkamenduaren ordenamenduagaz lotuta, egoiliar txartelaren alta edo baja urtearen barruan egiten bada, kuotaren zenbatekoa urteko hilabeteen arabera proportzionalki banatuko da. Orain arte, kuota osoa ordaindu izan da alta hartzean.

Presatxoko aparkalekua itxi dute lurraren kalitatearen probak egin bitartean

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizen, Presatxoko aparkalekua aldi baterako itxi dute asteen. Udalak ohar bidez jakitera eman duenez, obrak egingo dituzte bertan, gune horretan dagoen eraikinaren azpiko kalitatea aztertzeko. Beraz, arrazoi hori dela-eta, aparkalekua ez da erabilgarri egongo.

Hala ere, gaur, esaterako, seinaleztatuta dagoen gunean baino ezingo dela aparkatu jakitera eman dute Berrizko Udaleko kideek.

Euskara ikasi duten herritarrei diru-laguntza eskainiko die Garaiko Udalak

GARAI • MARKEL ONAINDIA

Garaiko Udalaren ustez, oso garrantzitsua da helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragitea, horri esker herriko euskaldunen portzentajea handitu ahalko delako. Horregatik, euskara ikasten ibili direnei diru-laguntza eskaintzeko, partida bat gorde dute aurrekontuan, 950 eurokoa. Interesdunek azaroaren 30era arteko epea dute eskaera aurkezteko, eta, gutxienez, klaseetarako %80ko asistentzia egiaztatu beharko dute.

Mañariko Eskuagatx mendiko kobazulo batetik 400 kilo zabor atera dituzte espeleologoeak

Hamarkadetan zehar pilatutako hondakinak atera dituzte Eskuagatxeko E-26 leizetik, batez ere beirazko botilak



Zaborra leizetik atera eta gero, gaika sailkatu zuten.



Goiz osoa behar izan zuten hondakinak atera, sailkatu eta garraiatzeko.

MAÑARIA • MARKEL ONAINDIA

Euskal Espeleologoen Elkargokoek Eskuagatx mendiko E-26 izeneko kobazuloa garbitu zuten joan zen egunean, eta 400 kilo zabor atera zituzten handik. Hamarkadetan zehar pilatutako hondakinak ziren, batez ere beirazko botilak. Goiz osoa behar izan zuten lanerako. "Leizea sakonune baten ertzean dago, eta 11 metro sakon baino ez da. Hala ere, sinesgaitza da hain zulo txiki batetik zenbat zabor atera daitekeen", azaldu zuten oharrean.

Abadiñoko GEMA espeleologia taldeko Eneko Garitagoitia izan zen partaideetako bat, eta esan du ohikoa dela hainbeste zabor topatzea leizeetan. "Behin baino gehiagotan egin ditugu horrelako garbiketak, eta normala izaten da zabor piloa topatzea. Gehienak ez dira oraingoak izaten."



ENEKO GARITAGOITIA

Lehenagoko ikuskeragatik da, dena zuloetara botatzen baitzen", esplikatu du Garitagoitiak. Iaz Berrizen ere garbitu zuten leize bat espeleologoen elkarrekin.

"Lehenagoko ikuskeragatik da, dena zuloetara botatzen baitzen"

erreskateak ere egiten dituzte.

GEMA taldeak, elkargokoaz aparte, bere lana ikerketa zienti-

fikora bideratzen du; zulo berriak katalogatu, galeria eta errekek topatu, lan topografikoa egin...

Urkiolako parke naturala da euren lan eremua, eta 400 bat kobazulo katalogatuta dituzte bertan. "Luzeenak 6 kilometro ditu, Eskuagatxen, eta sakonenak 270 metro, Mugarran", kontatu du Garitagoitiak. Egindako lanak prentsan publikatzen dituzte. "Nire ustez, ingurune hori babesteko modurik onena lurpean dagoen altzorra eza gutzera ematea da", gaineratu du.

Julen Praderak eta Xabat Uzuriagak irabazi dute, aurten, elizpeko pilota txapelketako finala

Partidu gogor eta lehiatu batean, irabazleek 30-23 menderatu zituzten Aner Gomez eta Unai Uzuriaga

MALLABIA • JOSEBA DERTEAN

Urriko Jailetako ekimen berezietako bat elizpeko pilota txapelketa izaten da. Aurtengo aldian 12 bikotek parte hartu dute eta Julen Praderak eta Xabat Uzuriagak osatutakoa izan da onena. Joan zen zapatuko finalean 30-23 menderatu zituzten Aner Gomez eta Unai Uzuriaga, Xabaten anaia. Txapelketa Koldo Praderak antolatzen du urtero.

Lege berezi eta propioak ditu elizpeko pilota txapelketak. Esate baterako, ezkerrean dauden eserlekuak trinketeko sabaiaren moduan erabiltzen dira.



Julen Praderak eta Xabat Uzuriaga txapelkunak ezkerrean eta Aner Gomez eta Unai Uzuriaga azpitxapelkunak eskuman. VALENTIN MUGARZA



ARGAZKIA, 'TORNEO INTERPUEBLOS DE BIZKAIA' LIBURUTIK'

Hareek denporak!

25 urte Atxondok azkeneko herri artekoa irabazi zuenetik

70eko hamarkada osoan eta 80ko lehenengo erdian Atxondo erreferente nagusietako bat izan zen Bizkaiko Herri Arteko Pilota Txapelketan. 1970etik 1983ra bost final jokatu eta horietako bi irabazi zituen: 1971n eta 1983an. Beraz, aurten 25 urte bete dira Atxondok azkeneko txapela irabazi zuenetik.

Zaldibarren kontra jokatu zuen Mungiako pilotalekuan. Zaldibar garai hartako herririk

indartsuenetakoa zen eta 70eko hamarkadan hiru txapel irabazita zituen. Hain zuzen ere, 1979ko garaikurra Atxondori irabazi zion. Handik lau urtera, arantza hori ateratzeko aukera izan zuten atxondarrek eta errebantxa hartu zuten final orekatu batean. Josu Garcia-Ariño, Beloki eta Zarandona izan ziren final hartako protagonistetako batzuk atxondarren partetik.

Politikan

Goiztidi
Díaz Basterra
EAJ



Euskadi mundura bai!

Egun gutxi barru, munduan eza-guna den gertakizuna izango da Barakaldoko BEC erakustazokan, MTV sari banaketa hain zuzen ere. Gauza guztiekin gertatu ohi den bezala, gertakizun honek ere baditu bere jarraitzaileak eta bere aurkariak. Gustuko izan dezakegu MTV sari banaketa edo ez, baina eztabaida guztietatik kanpo geratzen dena da Bizkaiaarentzat zein Euskadirentzat gertakizun hau erakusleho ikaragarria dela.

Munduko gertakizun honen inguruan gure uriak ere badauka bere txokoa. Izan ere, aste honetan egin den kontzertuak Durango MTV sari banaketaren protagonisten artean kokatu du. Argi dago, jaialdi guztiekin gertatzen den bezala, honek ere bere eragozpen eta deserosotasunak dituela, baina etekinak ere balio handikoak dira.

Euskadi gure aberria dela sentitzen dugunok harro gaude egun hauetan Euskadi munduratu egingo delako. Harro gaude agerian jartzen direlako Euskadik dituen balioa eta gaitasuna. Munduan protagonista izango da euskal nortasuna eta, horretara, euskaldunak ere bai. Aukera paregabea zalantzarik gabe.

Askotan esan dugun bezala, Euskadi eta Durangoren alde egingo dugu lan. Bidera jaurtitzen dizkiguten harri guztien gainetik salto egin eta aurrera egingo dugu, Durangorentzat onura lortzeko helburuarekin.

Euskadi da euskaldunon aberria eta egun hauetan MTV sariak gure aberria eta gure uria mundura zabalduko duten erakusleho bikaina dira. Gure aberriaz harro gaudenok tinko eutsiko diogu lanari eta zentzugabekeriak aldarrikatzen dituzten aurkariak hor konpon daitezela. Batzuetan hobe da berba ergelei belarriak ixtea. Ongietorriak izan daitezela Durango, Bizkaia eta Euskadi munduratzen dituzten gertakizunak!

Durangaldea asteen

Berbaro elkarteak astelehenean jarriko du martxan Haur Literatura Aretoa

Durangaldea | Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza irakurketarekiko zaletasuna bultzatzea eta literatura lan gomendagarriak lantzea oinarri duen Haur Literatura Aretoa martxan jarriko du Berbaro elkarteak. Astelehenean Zornotzan emango diote hasiera ekimenari, bertako eskoletako gazteekin. Durangoko eta Berrizko ikasleekin ere arituko dira irakurzaletasuna bultzatzen.

Hamar Zentzumen Esperientzia zozkatuko ditu Durangoko Dendak Baik

Durango | Durangoko Dendak Bai merkatari elkarteak Zentzumen Esperientziak banatuko ditu Durango Txartelagaz erosketak egiten dituztenen artean. Erosketak azaroan egin beharko dira eta 10 saritu egongo dira. Ohar bidez jakitera eman dutenez, Durangoko Gran Hotelean pertsona birentzako spa zirkuittua eta menu berezia dira sariak.

Emakumeen ahalduntzea bultzatzeko, Zornotzan hiru tailer egongo dira azaroan

Zornotza | Zornotzako Udalak hiru tailer antolatu ditu azararako, emakumeen ahalduntzea bultzatzeko asmoz. Lehenengo tailerra gazteentzat izango da. Bertan, gaur egun gazteek entzuten duten musikaren gaineko gogoeta egitea izango da helburua. Bigarren neska gazteentzat izango da, autodefentsa feministaren ingurukoa. Hirugarrena ere autodefentsa feministaren ingurukoa izango da, baina emakume helduei zuzendutakoa.



LABek deituta, asteen kontzentrazioa egin dute metaleko hitzarmenaren alde

Durangaldea | Aste honetan Elorrioko Neco enpresaren aurrean egindako elkarretaratzean, 15 urtean hitzarmen kolektibo sektorialik barik daudela salatu dute metaleko hainbat langilek. LABek deitutako elkarretaratzean, euren lan baldintzak gero eta "prekarioagoak" direla adierazi dute. Beraz, hitzarmen sektoriala sinatzea aukera bakarra dela esan dute.

Bestalde, egoeraren larritasunak "behartuta", patronala eta honen ordezkariak "presionatuko" dituztela jakitera eman dute.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta
Tel.: 946 205 187 - Faxe: 946 205 194

Nevadah

KONTZERTUA
ELORRIO : Azaroak 8

Arriolako XXIX. Jazz Blues

Arriolako Jazz Blues jaialdi entzutetsua etxeko talde batez hasiko da 29. edizioan. Durangaldeko Nevadah taldeak zabalduko du jaialdia. Aurten kalaturiko *We're Coming To You* diskoa aurkeztzen ari dira azken hila-beteetan. Urrian, besteak beste, Gasteizko Helldorado aretoan

aritu dira, The Bellrays talde ezagunagaz batera. Akitaniako La Réolen, Simone Pête les Watts jaialdian jo zuten, eta Bilboko Aste Nagusian, Bilborock areto mitikoan. Azaroaren 8koa aukera ona izango da boskotearen energiaz beteriko zuzeneko ikusteko.



'Margolan Itzuliak' erakusketa, Javier Novo komisarioaren eskutik

ARTEA | FIG Bilbao Grabatuaren eta Paper Gaineko Artearen Nazioarteko VII. jaialdia dela-eta, Bilboko Arte Ederren museoko 37 grabatu Durangoko Arte eta

Historia museora ekarri dituzte. Javier Novo erakusketaren komisarioagaz *Ideia Erreproduzitzen. Erreproduzioaren Historia Laburra* bisita gidatua egiteko aukera

egongo da azaroaren 7an. "Erronka bat izan da grabatuak modu honetan aurkeztea", esan zuen Novok aurkezpenean. Zati bitan dago banatuta erakusketa. Bate-tik, XIX. mende aurreko lanak, eta bestetik, XIX. mende amaieratik gaur egunera artekoak. Bertan, Picassoren, Baconen eta Tàpiesen litografiak ikusi daitezke. 'Margolan Itzuliak' urtarilaren 13ra arte egongo da ikusgai.

Azaroaren 2an

ELORRIO antzerkia
Teatro Defondoren
'Orlando' antzezlan,
20:30ean, Arriolan.

DURANGO musika
Kokein eta Siroka
taldeen kontzertua,
22:00etan, Plateruenean.

ELORRIO musika
Soledad Velez artistaren
kontzertua, 22:30ean,
Ateneon.

Azaroaren 3an

DURANGO bisita gidatua
'Black and White
Durango' bisita gidatua,
ingelesez, 12:00ean,
(aurretik izena eman behar
da 946818066 telefonoan
edo gerediaga@gerediaga.eus
helbidean).


ELORRIO erakusketa
'Surami-K' zeramika
erakustaldia, ZaldibART
jardunaldien baitan,
18:30ean, udaletxeko
plazan (euria eginez gero,
bertan behera geratuko
da).

ELORRIO musika
'24 Ordu Digitalean'
Arriolako XIII. Film
Laburren lehiaketako
sari banaketa eta
proiektzioa, 22:00etan,
Arriolan.

Azaroaren 5ean

ELORRIO tailerra
'Emozioak eta zaintza'
ikastaroa, 17:30ean, Iturri
kultur etxean.

DURANGO tailerra
'Ahobizi tailerra',
19:00etan, Euskaraldiaren
lokalean.



ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **kultura@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Gotzon Barandiaran Durangon 'Hitzen Ahairea' aurkezten

LITERATURA | Azaroaren 8an 'Hitzen Ahairea' saia- kera liburua aurkeztuko du Gotzon Barandiaranek Hitz liburudendan. Euskaldu- nok zeri kantatzen diogun galdetzen du liburuaren egileak. "Zein harreman du

kantatzen dugunak gure izaeragaz? Zeintzuk dira gure erreferenteak?". Iraga- netik gaur egunera, etorki- zunera begiratuta, aldake- ten gakoei buruzko haus- narketak mahai gainean jarri gura ditu autoreak.



IURRETA **musika**
'Las Guitarras que nos Envuelven' kontzertu didaktikoa Marc Castelloren eskutik, 18:30ean, Ibarretxen.

Azaroaren 6an

ABADIÑO **deialdia**
'Abañoko Gaztiek!' programan parte hartu gura duten 10-14 urteko ume eta gazteen gurasoentzako deialdia, 18:15ean, Txanporta kultur etxean.

Azaroaren 7an

DURANGO **tailerra**
'Norbere burua zaindu' ikastaroa, 17:30ean, adinekoen udal egoitzan.

ZALDIBAR **tailerra**
'Norbere burua zaindu' ikastaroa, 17:30ean, Liburutegi zaharrean.

ELORRIO **aurkezpena**
'2+2 ez dira beti 4' euskararen erabilera datuak, 19:00ean, Arriolan.

Azaroaren 8an

DURANGO **aurkezpena**
'Zeri kantatzen diogu euskaldunok?' aurkeztuko du Gotzon Barandiaran egileak, 19:00ean, Hitz liburudendan.

Azaroaren 9an

BERRIZ **antzerkia**
'Kanpoaldea toki bat da' antzezlan, 17:00etan eta 18:15ean, Kultur Etxean.

ZORNOTZA **antzerkia**
'Artha' ikuskizuna Elirale dantza taldearen eskutik, 20:15ean, Zornotza Aretoan.

Azaroaren 10ean

DURANGO **bisita gidatua**
'Durango dorre puntatik' bisita gidatua, 12:00ean, (aurretik izena eman behar da 946818066 telefonoan edo gerediaga@gerediaga.eus helbidean).

DURANGO **ospakizuna**
Kurutziaiga Ikastolaren 50. urteurren ospakizuna. Puzgarriak, 10:30ean, Landako Gunean.

Ane eta Piratekin parrandan, 12:00etan, Plateruenean.
Musika, 12:30ean, Durangoko kaleetatik, **bazkaria eta urteurreneko ekitaldia**, 14:30ean, Landako Gunean.
Erromeria Luhartzegaz, 17:00etan, Landako Gunean.

BERRIZ **antzerkia**
'Node Akziona' antzezlan, 20:00etan, Kultur Etxean.

Azaroaren 11n

DURANGO **antzerkia**
'Linbo Planeta' Dejabu Panpin Laborategiaren obra, 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO **ekitaldia**
'Agurrik Gabeak' omenaldi ekitaldia, 18:00etan, Plateruenean.

Azaroaren 16an

ABADIÑO **emanaldia**
'Ttipia Ganbaran' ikuskizuna, 18:30ean, Errotan.

ZORNOTZA **antzerkia**
'Lorca, la correspondencia personal' antzezlan, 20:15ean, Zornotza Aretoan.



Zine- ma

:: Berriz
KULTUR ETXEA

• **La Casa del Reloj en la Pared**

barikua 2: 18:15
domeka 4: 17:00

:: Durango
ZUGAZA

• **Bohemian Rhapsody**

barikua 2: 19:00/22:00
zapatua 3: 16:30/19:30/22:30
domeka 4: 16:30/19:00/21:30
astelehena 5: 18:30/21:00
martitzena 6: 20:00
eguaztena 7: 20:00

• **El Cascanueces y los 4 Reinos**

barikua 2: 19:30/22:00
zapatua 3: 17:00/19:30/22:30
domeka 4: 16:30/19:30/21:30
astelehena 5: 18:30/21:00
martitzena 6: 20:00
eguaztena 7: 20:00

• **El Árbol de la Sangre**

barikua 2: 22:00
zapatua 3: 19:30/22:30
domeka 4: 19:00/21:30
astelehena 5: 18:30/21:00
martitzena 6: 20:00
• **Go!azen 5.0**
barikua 2: 19:00/20:30
zapatua 3: 16:30/18:00
domeka 4: 16:30/18:00

:: Elorrio
ARRIOLA

• **Gure Oroitzapenak**

domeka 4: 20:00
astelehena 5: 20:00

• **Teen Titans Go!**
domeka 4: 17:00

:: Zornotza
ARETOA

• **El Árbol de la Sangre**

barikua 2: 20:15
zapatua 3: 19:30/22:00
domeka 4: 20:00
astelehena 5: 20:15

“Jendea ez da mugitzen talde berriak ezagutzeko; gurago du hauek etxe albora etorri arte itxaroten egon”

Diskoa kaleratu duenetik, kontzertu ugari eskaintzen ari da La Última Bala; azkena, aste honetan, etxean, Zaldibarko Sorgin tabernan



Igor Rodríguez, Adrian Muñoz eta Javier Olmo.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

2016an laukote moduan hasi ostean, egun Igor Rodríguezek (ahotsa eta baxu-jotzailea), Adrian Muñozek (gitarrista) eta Javier Olmok (bateria-jotzailea) osatzen dute La Última Bala talde zaldibartarra. Bertako Gari Rock Elkartean entseatzeko dute. 'Rock & Roll' izeneko diskoa kaleratu dute aurten, izaera eta freskotasun handiko abestiz osatua.

Zelako esperientzia izan duzue estudioan?

2018ko udaberrian grabatu genuen diskoa, Andoainen (Gipuzkoa), Alvaro Remacharen estudioan. Aurretik ere bagenuen estudioko esperientzia taldekideok, egon garen beste taldeekin ere grabatu izan dugu eta. Egia esan, Alvaroren lan onak eta disonibiltateak eragin handia izan du grabatzerakoan. Horiek izan dira gakoak. Izan ere, estudioko orduak

gure lanorduekin tartekatzea lan gaitza izan da. Emaitzagaz oso pozik geratu gara eta jendeak ere ondo erantzun dio diskoari. **Diskoa 'Rock&Roll' deitzen da. Izenburu zuzena.**

Egia esateko, ez genuen pentsatu diskoaren izenburu moduan. Azalean agertzen dena gure logoa da, eta egiten dugunaren isla izatea bilatzen genuen. Zerbait erraza egin gura genuen, ikusteagaz bate-

“**Egunerokotasunean arduratzen gaituzten gaiei buruz abesten dugu: prostituzioa, korruptzioa...**”

ra taldeagaz identifikatuko zuena jendeak. Badakigu ez dela erraza, baina, gutxinaka, bagabiltza lortzen. Diskoan, kamisetetan eta kontzertuetako karteletan hainbat bider errepikatu dugu.

Garai onak al dira rock & rollarentzat? Egungo eskaintza musikala oso zabala da. Talde asko daude eta horietako asko oso onak dira, gainera. Leku asko ere badaude jotzeko. Hala ere, horrelako eskaintza kopuruaren eraginez, baliteke ikuslea bere konfort egoeratik ez irtetea. Jendea ez da mugitzen talde berriak ikusteko edo ezagutzeko, eta gurago du horiek euren etxera hurbildu arte itxaron. Egia da, baita ere, teknologiari esker klik bakarragaz munduko musika guztia duzula eskura gaur egun. Guk, ordea, rock & rolla zuzenean sentitzearen aldeko apustua egiten dugu, jendeak bere sentsazioak momentuan erakusteko eta ga-

ragardo batzuk eskuan ditugula barre egiteko.

Zeri buruz abesten duzue?

Hitzak, batez ere, Igorrek egiten ditu. Esaldi bat edo pare bat hartu, eta forma ematen die abestia garatzen joan ahala. Egunerokoan arduratzen gaituzten gauzei buruz abesten dugu. Adibidez, prostituzioa, korruptzioa eta konpromiso sozial eza hartu ditugu gai disko honetako abesti batzuetan. Beste

“**Ahalik eta gehien entseatzeko eta zuzenean jotzen ari gara; datorren urtean disko berria gura dugu**”

batzuetan, oster, erromantikoago jartzen gara, eta gaueko bizitzari buruz edo giza harremanei buruz abesten dugu.

Musikalki, zeintzuk dira zuen influentzia nagusiak?

Hainbat estilotako eraginak ditugu. Talde askotatik edaten dugu. Nazioarteko batzuk aipatzearren, Motorhead, Black Sabbath eta Jimmy Hendrix aipatu ditzaket. Estatukoei dagokienez, M-Clan, Marea eta Extremoduro aipatu ko nituzke influentzia nagusi moduan. Euskal Herriko hainbat talde ere oso gustuko ditugu; adibidez, Parabellum, Soziedad Alkoholika, Su Ta Gar, Barricada eta La Polla Records, beste talde batzuk aipatzearren.

Kontzertu zaleak izan gara beti, eta izaten jarraitzen dugu. Estilo ezberdinetako kontzertuak ikusten ditugu, gainera. Zabalik gaude talde berriak ezagutzeko, izan rocka, heavya, edo hardcorea jotzen dutena. Pentsa, pop kontzertuetan ere egoten gara.

Pozik orain artean eskaintako zuzenekoekin?

Guretzat ez da batere erraza zuzenekoak lortzea. Laneko txanden edo lan biguingarrien menpe gauden, eta horrek ez digu uzten epe luzera begira kontzertuak lotzen. Hala ere, ahalik eta gehien jotzen saiatzen gara. Hainbat lokal eta aretotan aurkeztu dugu diskoa, eta publikoaren harrera nahiko ona izan da. Gehiago jo gura dugu, noski, orain buru-belarri ari gara kontzertu bila, eta eskaintza bat dugun bakoitzean datak koardratzen saiatzen gara kontzertua eskaini ahal izateko.

Aurrera begira, ze asmo duzue?

Momentuz, lokalean jo eta su ari gara entseatzeko, eta ahalik eta kontzerturik gehien eskaintzen, horrela taldea ezagutzera emateko. Abesti berriak sortzen ere bagabiltza, eta datorren urtean disko berri bat kaleratzea gustatuko litzaiguke.

Zerbait gehitu gura duzue?

Laguntzen digun jende guztiari eskerrak eman gura dizkiogu, eta, batez ere, Oskar Lahoreri. Ikaragarri laguntzen digu kontzertuetan, kartelgintzan eta sare sozialekin. Pott produkzioei ere gure eskerrik beroena, jakina. Berriki kamisetak atera ditugu, eta kontzertuetan erosi daitezke. Facebooken orrialdea dugu, eta gura duenak hortxe izango du gure berri. Osasuna eta rock&rolla. Beti geratuko zaigu azkeneko bala.

Kontzertu didaktiko bategaz emango diote hasiera Musikaldiari lurretan

Herritarrei musika hurbiltzeko asmoz azaroan antolatzen duten ekimena da Musikaldia



Paddan bikotearen kontzertua 18:30ean hasiko da, azaroaren 9an.

MUSIKA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azaroagaz batera, Musikaldia hel-
du da lurretara. Aurten ere, herri-
tarrei musika hurbiltzeko asmoz,
kontzertuak antolatu dituzte. Kon-
tzertu didaktiko bategaz emango
diote hasiera aurten ekimenari,
Marc Castelloren *Las guitarras que
nos envuelven* kontzertugaz. Azaroa-
ren 5eko kontzertuaren helburua
ikasleak gitarrara eta honen soinu-
ra hurbiltzea izango da.

**Azaroagaz batera, hiru
kontzertu eskainiko
dituzte lurretan,
Musikaldiaren baitan**

**Durangaldeko 4Kote
taldeak ere parte
hartuko du Musikaldian,
azaroaren 17an**

Bigarren emanaldia azaroaren
9an izango da. Paddam bikoteak
La Chanson lana aurkeztuko du.
Kontzertu hau 18:30ean izango da,
Ibarretxe Kultur Etxean.

Azaroaren 17an emango diote
amaiera Musikaldiari. Egun horre-
tan, Durangaldeko 4Kote taldeak
parte hartuko du. Emanaldi hau
ere 18:30ean izango da, Ibarretxen.

Gai
librean

Ihintza
Orbegozo Igartua
Plateruenerako
kudeatzailea



Denak behar ditugu

Azken boladan sarritan ego-
kitu zait Euskal musikaren
kalitatearen inguruan irakurri
eta entzutea, zer den ona eta
zer txarra epaituz. Badira abes-
ti bat euskaraz delako soilik
onartu beharraren aurkakoak,
hizkuntza irizpidearen gaine-
tik musikaren kalitatearena
jarriz. Hau ez da eztabaida ber-
ria, lehenago ere izan baitira
talde batek musika estilo bat
edo beste jorratzen duelako
kritikatu izan dutenak.

Duela gutxi, parrandan, mu-
sika komertziala ipintzen du-
ten taberna batean kaña bat
edaten eman genuen denbo-
ran, atzerriko hainbat abesti
jarri zituzten, Gatiburen bi
abestirekin tartekaturik. Hor
hasi zen Euskal patxanga dela-
koaren eztabaida lagun artean.
Zer den Euskal patxanga eta
benetan hori nahi dugun gure
herriarentzat. Orduan kontu-
ratu nintzen, Euskal patxanga
horrengatik izan ez balitz,
taberna horretan atzerriko
musika bakarrik entzungo
genukeela.

Euskal Herria anitza dela
lau haizetara aldarrikatzen
dugun garai honetan, musikari
dagokionez gizarte elitista bat
bilatzen dugula iruditzen zait
batzuetan, kultuzko talde al-
ternatiboak goratu eta patxan-
ga edo komertziala arbuatuz.
Bada, gizartea anitza izango
bada, musikak ere hala behar
du, eta Euskal rock&rolla be-
zala, Euskal reggaetoia, Euskal
technoa eta Euskal death me-
tala behar ditugu, euskaldun
guztiok geure gustuko musika
geure hizkuntzan entzuteko
aukera izan dezagun.

Nik ere egotzi izan diet gustu-
ko ez ditudan taldeei txarrak
izatea; beraz, aurrez idatzi-
takoa autokritika bat izateaz
gain, barkamen eskea ere izan
dadila.

Asteburu honetan helduko da eskualdeko zinemetara 'Gure Oroitzapenak' filma

Joseba Sarrionandiaren obran oinarrituriko film kolektiboa egin dute hamabi sortzailek



Pelikularen irudietako bat.

ZINEMA • A.M.

Donostiako Zinemaldian lehenbi-
zikoz eskaini zutenetik, hainbat
aretotatik igaro da pelikula. Ipar
Euskal Herrian hasi eta Hego Eus-
kal Herrira heldu zen orain aste
bi. Asteburuan, lehenbizikoz Du-
rangaldeko zinema areto batean
eskainiko dute filma, Elorrioko
Arriolan.

Hamabi zinema zuzendarik Sa-
rriren unibertso literarioari buruz
duten ikuspuntua erakusten duen
obra da 'Gure Oroitzapenak'. Zine-
magile bakoitzak poeta iurreta-
rragaz duen harremana azaltzen
da filmean, dela pertsonala, dela
literarioa edo dela miresmenezkoa.
Besteak beste, Fermin Muguruza
eta Mireia Gabilondo artistek atal
bana zuzendu dute.

www.plateruena.eus

PLATERUENA

PLATERUENA Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A
DURANGO
Tel.: 946 030 300
jaletxea@plateruena.net

Azaroak 23 · 21:30ean
PUB QUIZ
Lehiaketa

Azaroak 24 · 22:00etan
SU TA GAR
Kontzertua

Azaroak 30 · 21:30ean
JAM SESSION
Jam Session

Linbo Planeta
Dejabu Panpin Laborategia

Azaroak 11, martitzena
18:00etan

San Agustin KULTUR GUINEA
DURANGOKO UDALA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

BB King-egaz aritutako Lonj gitarrista frantziarrak kontzertua eskainiko du Arriolan azaroaren 10ean

XXIX. edizioa izango du aurten Arriolako Jazz Blues Jaialdiak; azaroaren 8an hasiko da, Nevadaharen kontzertuagaz



The Cherry Boppers taldea.

MUSIKA • A.M.

Jazz eta Blues doinuz bustiko da beste udazken batez Elorrioko Ateneo. Ia hiru hamarkadaren ostean, jaialdiak ohiko filosofiagaz jarraitzen du: alde batetik, jazz eta blues doinuen eskaintza anitza

Ia hiru hamarkadaren ostean, jaialdiak ohiko filosofiagaz jarraitzen du

Bigarren asteburuko kontzertu sorta The Cherry Boppersek zabalduko du

edukitzea, eta, bestetik, Euskal Herriko zein nazioarteko joeren erakuslea izatea.

Durangaldeko talde gazte baten kontzertuagaz hasiko da aurtengo

jaialdia. Nevadahk azaroaren 8an eskainiko du emanaldia. Azaroaren 9an, Dani Pozo 4tet izango dira protagonistak. Gazte talde honek munduko zenbait erritmo jazzagaz nahasten ditu. Egun bat geroago, hilaren 10ean, Lonj gitarrista frantziarraren gitarra doinuez eta ahotsaz gozatzeko aukera egongo da. Besteak beste, Burdeosko musikaria BB King, T-Model Ford eta Sam Carr blues izarrekin aritu izan da oholta gaineran.

Zortzi ekitaldi

Azaroaren 18ra arte iraungo du jaialdiak. Bigarren asteburuko kontzertu sorta The Cherry Boppersek zabalduko du; bilbotarrak funkaren ezinbesteko erreferentzia dira Euskal Herrian. Angel Unzu Cuarteto Electricok azaroaren 16an eskainiko du kontzertua; jazz eszenako hiru *animaligaz* batera osatzen du Unzuk laukote hau: Andrzej Olejniczak-egaz, Gonzalo Tejadagaz, eta Juanma Urrizagaz. Azaroaren 17an Hector Watt estatubatuarra izango da oholta. Arriolatik herri osora zabaltzea izan da antolatzaileen helburuetako bat. Horrela, gaztetxean (azaroaren 11n, Broken Brothers Brass Band) eta Portalekuan (azaroaren 18an Tobacco Road) ere egingo dira kontzertuak.

Bizkarra ere finalaurrekoetara Bizkaiko Bertso Txapelketan

Eneko Abasolo 'Abarkas'-ek aukerak ditu sailkatzeko, baina Berriatuan jokatu den kanporaketako emaitzen zain egon behar du

BERTSOLARITZA • A.M.

Plentziako saioa irabazita, finalaurrekoetara sailkatu da Aitor Bizkarrak abadiñarra. Bertsolariak 461,5 puntu eskuratu zituen, eta, honenbestez, hurrengo fasean egongo da. Gorka Pagonabarraga durangarrak 433 puntu lortu zituen saio berean eta aurrera egiteko aukerarik barik geratu da. Garikoitz Sarriugar-te zaldibartarra ere udazkeneko kanporaketan fasean geratu da. Finalaurrekoetara nortzuk igaroko

diren asteburu honetan erabakiko da, Berriatuan jokatu den saioan. Eneko Abasolo 'Abarkas' iurretarrak aukerak ditu sailkatzeko, Santurtzin lortu zuen puntuaketa txukunari esker. Honenbestez, Aitor Bizkarrak Miren Amurizagaz batera abestuko du Berrizko saioan, azaroaren 18an. Azaroaren 25ean Beñat Ugartetxeak Igorreko kanporaketan abestuko du. Eta abenduaren 1ean Txaber Altubek Lekeitioko finalaurrekoan kantatuko du.



Bizkarra, joan zen domekan, Plentziako saioan.

ALBERDI
HARATEGIA

ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658

SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722



ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyexpe.com



Jon Galarza Lete
Durangoko Kulturala
Abadiño, Durangon
bizi da | 1993

“Pisu handia kendu dugu gainetik”

Durangoko Kulturalaren lehenengo garaipenak hiru puntu baino gehiago balio izan ditu

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Kulturalaren lehenengo garaipena hamargarren jardunaldian heldu da. Sporting B taldeari 2-1 irabazi zioten eta goletako bat Jon Galarza zentralak sartu zuen. Bigarren B Mailako azken postuan jarraitzen dute, baina garaipenak animikoki indarrak hartzeko balio izan diela onartu du.

Aurreko partiduekin alderatuta, zer egin zenuten edo irten zen desberdin garaipena lortzeko?

Oso partidu serioa jokatu genuen. Beste partiduekin konparatuta, ordenatuago eta oldarkorrago ikusi nuen taldea. Iker Amorrortuk sartu zuen lehenengo gola. Ondoren, 89. minutuan, neuk sartu nuen bigarrena, baina handik minutu batera alde murriztu ziguten. Apur bat sufitrzea egokitu zitzaigun.

Lehenengo garaipenak hiru puntu baino gehiago suposatzen du?

Pisu handia kendu dugu gainetik. Bederatzi partidutan bat bera ere ez irabaztea gogorra da. Horrek,

nahitaez, konfiantzan eragiten dizu. Irabaztea behar genuen eta konfiantza emango digula uste dut. **Gol denek ez dute balio berdina. Joan zen asteburuan sartu zenuena balio-tsuen zakuan gordeko duzu?**

Bai. Taldeak hiru puntuak batzeko balio izan zuelako eta garaipen hori behar genuelako. Gainera, Bigarren B Mailan sartu dudana lehenengo gola izan da. Behar nuen eta alde horretatik ere pozik nago.

Errematera igotzen den defentsa horietakoa zara?

Faltetan eta kórnerretan gustatzen zait igotzea. Iaz ez nuen golik sartu, baina aurreko denboraldietan sartu izan ditut, gehienak buruz.

“

Taldean familia bat gara eta gure artean oso ondo konpontzen gara; ez da toki denetan gertatzen”

—

Zein da zure markarik onena?

2013/2014 denboraldian zazpi gol sartu nituen Durangoko Kulturalagaz.

Zelakoa den futbola. Sporting B taldea liderrari 3-1 irabaztetik zetorren Durangora.

Horrek erakusten du Bigarren B Mailan edonoren kontra irabazi edo galdu dezakezula. Ezin zaitezke une batean ere erlaxatu.

Kulturalaren mendeurreneko denboraldia da. Hori presio erantsi bat da? Urteurreneko denboraldian jaisteko arriskua...

Ez, horrek ez digu inongo presiorik sortzen. Mendeurrena ospatzeko den zer bait da, baina gu geurean zentratuta gaude.

Apustu etxeren batean Kulturala jaitsi egingo dela apustu egin duenari zer esango zenioke?

Ez duela apustu ona egin! Ez dut uste jaitziko garenik.

Egidazu taldearen orain arteko erradiografia. Zeintzuk izan dira indarguneak eta zeintzuk ahulguneak?

Indarguneetan taldean familia bat

garela eta gure artean oso ondo konpontzen garela sartuko nuke. Ez da talde denetan gertatzen. Horregaz batera, estilo propio bat daukagula esango nuke, urte askoan landu dugun estiloa. Talde langilea eta umila dela ere gehituko nuke. Ahulguneen artean, batzuetan oldarkorragoak izan behar dugula uste dut, eta taldea elkartuago egon behar dela. Batzuetan, lerroen artean distantzia handiegiak egon dira eta despistatu egin gara. Akatsak garesti ordaindu ditugu. Azkenik, esango nuke une batzuetan erabaki zuzenak hartzea falta izan zaigula, atzean, erdian, zein aurrean. Baina arazo horiek identifikatuta ditugu eta badakigu hobetu ditzakegula.

Aurretik Bigarren B Mailan ibili diren jokalar asko daude taldean ala esperientzia berria izaten ari da gehienentzat?

Gehienentzat berria da. Ni iaz eta Jon Aranda aurretik, Amorebieta taldean ibiliak gara. Ekaitz Molinak eta Adrian Abasolok ere badute esperientzia Leioa taldeagaz. Gainera, Abasolo Kulturalagaz Bigarren B Mailan jokaturakoa da, aurrerago

“

Akatsak garesti ordaindu ditugu, baina identifikatuta daude eta konpondu ditzakegula uste dut”

—

igo zen denboraldian. Beste denak Hirugarren Mailatik igotakoak dira eta kategoriara ohitzeak denbora eskatzen du. Esperientzia falta hori pairatu dugu.

Iaz Amorebietan jokatu zenuen. Zelako denboraldia izan zen?

Gehiago jokatzeara espero nuen. Lehenengo itzulian hiru partidu jokatu nituen titular. Bigarren itzulian nahikotxo jokatu nuen, baina ez atzelari, erdilari postuan baino.

Baina itzultzea erabaki zenuen.

Kulturala igo egin zen eta ona bueltatzeko aukera sortu zitzaidan. Bizitza guztia hemen egin dut, nire etxea da, jokalar denak ezagutzen ditut eta itzultzea erabaki nuen.

Kulturaletik kanpora eman duzun urte bakarra izan da?

Bai, txiki-txikitatik Kulturalan egon naiz. Behin irtengo, urtebeterako, eta orduantxe Bigarren B Mailara igo ziren.

Pena ematen dizu igoera hori bizi ez izanak?

Apurtxo bat bai, baina hartu ditudan erabakiak ez nituzke aldatuko. Neu nintzen Kulturala igotzeko desioa nuen aurrenekoa!

Bromaren batzuk entzun beharko zenituen...

Bai, “zu joan zarelako igo gara” eta antzerakoak (barreak).

Aurten gustura zabilta?

Bai, giroagaz oso gustura. Zoritxarrez, lesio bi izan ditut. Azkena, belauneko lotailuko zaintiratu. Sei astez bajan egon eta oraintsu itzuli naiz. Lesioa gaindituta dut.

Durangaldeko boleibolaren esperantza Kurutziaga Ikastolako taldea da

Gaur egun, boleiboleko talde bakarra dago Durangaldean

BOLEIBOL • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Boleibola kirol arrotza da Durangaldean. Gaur egun, eskualdean talde bakarra dago boleibolean jokatzen duena: Kurutziaga Ikastola taldea. Eurak dira, beraz, hemengo boleibolaren esperantza bakarra. Uri Lasa taldeko entrenatzailearen berbetan, taldeak badu etorkizuna, baina "laguntzarik barik ezinezkoa" izango da aurrera egitea. "Durangaldean boleibolari ez zaio laguntzarik ematen eta horrela ezinezko da", aitortu du Lasak.
Orain urte bira arte, Durangon Sapuherri taldea zegoen, baina laguntzarik ezak eta jokalaria faltak

bere desagerpena ekarri zuten. Lasa taldeko kidea zen, eta egun entrenatzen ari den taldeari berdina ez gertatzea espero du. "Harrobia lantzeko dago eta harrobia lantzeko apustua egiten badute, ez da galduko, bestela...", esan du.
Egun Donostiako KostKas boleibol taldean jokatzen du Lasa durangarrak, eta kirol hau kalera ateratzea dela gakoa uste du berak,

Lasaren hitzetan, taldeak badu etorkizuna, baina laguntzak beharrezko dituzte aurrera egiteko

jendeari erakustea. "Donostian ere ez du indar handirik, baina gure eskualdekoagaz alderatuta alde handia dago. Boleibola indartzeko, ezinbestekoa da kalera ateratzea", aitortu du.

Urtez urte, hobera
Entrenatzen dituen Kurutziaga Ikastolako taldeko neskei dagokienez, urterik urte hobetzen doazela aitortu du Lasak. "Ikaragarri hobetu dute eta garrantzitsuena da entrenamendu eta partiduetara pozik etortzen direla", jakitera eman du entrenatzaileak.
Denboraldia hasi besterik egin ez duten arren, aurtan lan txukuna egitea eta zelaian disfrutatzea dutela helburu esan du.



Dagoeneko hasi dute denboraldia Kurutziaga Ikastolako kideek.

Sei aizkolari bigarren mailako txapelaren bila, lurretan

Olaburu pilotalekuan jokatuko den txapelketako bi onenak lehenengo mailara igoko dira hurrengo denboraldian

AIZKORA • J.D.
Juan Jose Lopez eta Jose Antonio Etxeberria nafarrak, Arkaitz Jaurregui arabarra eta Luis Txapartegi, Jesus Mari Mujika eta Aratz Murgertza gipuzkoarrak. Sei aizkolari heldu dira finalera eta lurretako

Olaburu pilotalekuan erabakiko da euretako nor den aurtengo bigarren mailako txapelduna. Jaialdia domekan, 12:00etan, hasiko da. Txapelduna eta txapeldunordea maila nagusira igoko dira hurrengo denboraldian.



Otaduy eta Arrieta faborito dira hurrengo kanporaketan

Datorren ostegunean Olazar pilota txapelketako final zortzirenetarako txartela lortu dezake Otaduy berriztarrek

PILOTA • J.D.
Zaldibarko Olazar pilota txapelketa aurrera doa eta datorren egueneko partiduekin final zortzirenak erabakita geratuko dira. Gorka Otaduy atzelari berriztarra eta bere bikotekide Ioritz Arrieta aurrelaria faborito dira azken txartel horiek eskuratzeko. Lehenengo kanporaketan bikote sendoa osatu zuten eta nagusitasunez egin zuten aurrera. Eguenean, 21:30ean hasiko den partidurako ere faboritoak dira; Ioritz Eguiren

eta Joseba Aldabe izango dituzte aurkari.
Bigarren partidua
Jaialdiko bigarren partiduan Odei Expositok eta Jokin Sanchezek Oskar Lerenaren eta Jorge Sanchezen kontra jokatuko dute. Nor gehiagoka horrek ez du faborito argirik.
Azaroaren 15etik aurrera final-laurdenak erabakitzen hasiko dira. Finala, urtero lez, abenduaren 31n jokatuko dute.

Asteko kirolaria



LIDIA CAÑETE JAIO

Durango, Arku-Tiraketa

“Santurtziko proban nire marka pertsonala haustea lortu nuelako oso pozik nago”

Lidia Cañetek beterano mailan Euskadiko marka berria ezarri du arku-tiraketan

Euskadiko marka berria ezarri zuen beteranoetan, eta 2006an Maddi Zunzunegik senior mailan jarritakoa berdindu zuen: 573 puntu batu zituen 18 metrora zegoen dikanan.
Maila berrian estreinaldi bikaina egin duzu. Esperotakoa izan da?
Oso pozik nago domekan Santurtzin lortu nituen emaitzekin. Entrenamenduetan lan ona egiten ibili naiz, oso gustura sentitzen

nintzen. Baina, egia esan, entrenamenduak eta txapelketak oso ezberdinak dira eta inoiz ez dakizu zer irtengo den.
Beteranoetan Euskadiko marka berria ezarri zenuen eta senior mailan ere zeure marka hautsi zenuen.
Oso pozik nago Santurtziko proban nire marka pertsonala haustea lortu nuelako. Orain arte nire marka 569 puntutan zegoen eta lau puntutan ontzea lortu nuen.

Ikaragarria izan zen, lau puntu horiek hamar askoren emaitza dira eta, tiro askoren emaitza.
Gainera, Santurtzin emakumezko eta gizonezkoek batera lehiatzeko aukera izan zenuten.
Batera lehiatu ginen arren, sariak ez ziren bateratuak, eta horrek pena ematen dit. Nik beti mutilekin aritzeko borroka egiten dut eta nire helburua horixe izaten da. Azken finean, gure baldintzak

berdinak dira, emakumezkoa edo gizonezkoa izan. Beraz, zergatik ez denok batera parte hartu eta sailkapen orokor bakarra izan?
Azaroan Zaldibarren izango duzue Euskal ligako proba, etxean. Ilusio berezia duzu?
Etxean parte hartzeak beti egiten du ilusio berezia, baina, egia esan, etxean tiraldi kaskarrak egiten ditut beti. Etxeko txapelketan nire lana ez da lehiatzea bakarrik. Aurretik beste hainbat gauza egin behar izaten ditut: txapelketa antolatu, zenbat parte-hartzaile egongo diren jakin...
Hala ere, aurtan ilusio bereziagaz hartuko dut etxeko proba, gizonen eta emakumeen txapelketa parekatzea lortu dugu eta.

Beteranoen mailara pasatzeak ez du Lidia Cañeteren garaipen gosea apaldu. Joan zen asteburuan, Santurtziko arku-tiro lehiaketan,

Berrizko Ziklo-kros Sari Nagusiak 200 bat parte-hartzaile batuko ditu domekan Berrizburu inguruan

Asteburuan nazioarte mailako probarik ez dagoenez, maila handiko ziklistak bertaratzea espero dute antolatzaileek

ZIKLO-KROSA • JOSEBA DERTEANO

Berrizko Ziklo-kros Sari Nagusiaren 9. ekitaldia egingo dute domekan, Berrizburu inguruko zirkuituan. Maila guztiak kontuan hartuta, 200 bat parte-hartzaile izango dira. Asteburu honetan nazioarteko proba garrantzitsurik ez dagoenez, maila handiko ziklistak espero dituzte, hala nola Aitor Hernandez eta Javier Ruiz de Larrinaga gizonetan, eta Lierni Lekuona eta Olatz Odriozola emakumeetan.

Zirkuituari dagokionez, azken urte bietako ibilbideari eutsiko diote. Ibilbide "gogorra" da Iñaki Etxezarraga Berriz Bizikletari Elkarteko kidearen esanetan. Ez du ematen euririk egingo duenik eta horrek ziklisten lana erraztuko du.

Lehenengo lasterketa, master mailakoa, 10:00etan hasiko da. 11:00etan eta 12:00etan kadeteen eta gazteen txanda izango da, hurrenez hurren. Juniorren, 23 urtez azpikoen eta emakumeen probaren ostean, gizonezko seniorrena hasiko da, 13:00etan.

Erreferente den ingurua

2011n berreskuratu zutenetik, Berrizko proba urteroko hitzordu bihurtu dute Berriz Bizikletari Elkartekoek. Hiru bider Bizkaiko txapelketa hartu du eta behin —orain

urte bi— Euskadikoa. Horregaz batera, beste lorpen bat ere nabarmendu gura izan du Etxezarragak. "Berrizburu ingurua atondu zutenetik eta ziklo-krosa antolatzen hasi ginenetik, Iñaki Lejarreta zirkui-

tua eta belodromoa ere han daudela kontuan hartuta, inguruko gazte asko joaten da bertara bizikletan ibiltzera edo entrenatzera, eta arlo horretan erreferente bihurtu da", adierazi du Etxezarragak.



Goizean, 10:00etan hasita, mailaz maila irtengo dira parte-hartzaileak.

Trinketeko finala eta desafioa, biak irabazi ditu Gonzalezek

Desafioan 'Stich' mexikarra menderatu zuen eta binakako finala Inhar Ugartegaz irabazi zuen

TRINKETEA • J.D.

Nazioarteko Pilota Txapelketaren barruan hitzordu nagusi bi izan ditu Mikel Gonzalez berriztarrak eta bietan garaile irten da. Joan zen zapatuan buruz buruko desafioa jokatu zuen Stich mexikarraren kontra, Lekeitioko trinketeen. Pilotari berriztarrak 40-25 menderatu zuen mexikarra. Hurrengo egunean, aldiz, binakako finalean aritu zen Bilboko Bizkaia trinketeen. Inhar Ugartek eta biek 30-26 irabazi zieten Waltary kubatarrari

eta Asier Aspuru abadiñarrari. Inhar Ugartek txapelketan egin-dako lana ere azpimarragarria da. Egun gutxitan partidu asko jokatu eta denak irabazi ditu, sasoi betean dagoela erakutsita.

Tornosolo Kopa

Tornosolo Kopa da Ugartek irabazi duen txapelketetako bat. Ziarrustak eta biek, euskal selekzioa ordezkaturik, Diazek eta Cabello osatutako bikote mexikarrari irabazi zieten Abadiño trinketeen.

Eguraldi txarrari giro onagaz erantzun zioten gau krosean

KORRIKA • J.D.

Hotzak eta euriak ez zituen kokildu Durangoko Gau Kroseko parte-hartzaileak joan zen zapatuan. Eguraldi txarrari giro onagaz erantzun zioten. Emakumeetan

Raluka Ispizua izan zen onena. Inma Ruizek eta Itsaso Gangoitiak osatu zuten podiuma. Gizonetan Asier Aranburuk irabazi zuen, Iñigo Carbalhoren eta Markos Bernaolaren aurretik.



Durangoko gau kroseko onenak podiumean.

Jokaldia

Kepa
Arroitajauregi
Egaña
Pilota teknikaria



Txikia handi

Bizitzako arlo guztietan gertatzen den moduan, gauza gutxi batzuek pizten dute interesa. Handitasunean murgilduta dauden kontuek. Horrek omen daukate garrantzia. Pilotan, munduan LEP.M-ak antolatzen duen Lau eta Erdiko lehiaketa ari da bolo-bolo alde guztietan. Finalaurrekotan badu Bizkaia ordezkari bat eta horri jarraipena egin beharra dago, noski, baina beste guztia 'gutxietsi' barik, ezerezean utzi barik.

Adibidez, ez al da garrantzitsua 'euskal selekzioa'? Pasa den aste guztian zehar hainbat pilotarik egin dute horren aldeko aldarrikapena nazioarteko lehiaketa batean. Artean, bizkaitarrak, Durangaldekoak asko. Lehiaketa txikia, xumea, baina, nire iritziz, garrantzitsua. Abadiñon, Lekeition eta Bilbon aritu dira Mikel Gonzalez, Asier Aspuru, Aitor Arabiourrutia eta Jon Arana, beste askoren artean, Mexiko, Bolivia, Peru, Venezuela, Uruguai, Kuba edo Txileko pilotari handi askorekin lehiatzen.

Mexikarrak, esaterako, Nazioarteko federazioak Bartzelonan antolatutako mundialean azpitxapeldun geratu ostean etorri dira gurera. Espainia 'jipoitu' eta Frantziaren kontra galdu zuten finala. Hemen, benetan saiatu arren, ezin izan dute euskal selekzioarekin. Dena irabazi dute bertokoek. Ziarrusta-Ugarte bikoak Lekeition eta Abadiñon eta Mikel Gonzalezek eta Inhar Ugartek Bilbon. Benetako partidua ikusi dira, maila ikaragarria eta penaz, gutxi batzuentzat.

Kantxa guztietan izaniko giroa itzela izan da, nazioarteko pilotarien arteko elkartasuna eta bizikidetzaren ere bikaina, baina, tamalez, oihartzuna eskasa izan da. Garrantzirik ez omen...

CERAMICAS
MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER
Chimeneas
Condiciona MACOBER
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

Arrike
Liburudenda
Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Azaroaren 8an, 19:00etan, Gotzon Barandiaranek "Hitzen ahairea" aurkeztuko du.
Zeri kantatzen diogu euskaldunok?
hitz artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com
#aurkezpena

Osta-larritza gida

anboto

**Durango**



MIKELDI GELTOKIA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988

Alde zaharrean kokatuta.
Pintxo gozoak eta giro alaia.

**Durango**



GORA GORA
Arriluzea kalea, 2 - DURANGO
Tel.: 946 811 384

Plater konbinatuak, hanburgesak,
ogitartekoak eta kazolatxoak.

**Durango**



KOBIKA JATETXEA
San Ignazio, 8 - DURANGO
Tel.: 946 810 003

Egile sukaldaritza eta tradizionala.
Menu bereziak eta karta.

**Durango**



PLATERUENA Kafe Antzokia
Landako etorbidea, 4 - DURANGO
Tel.: 946 030 300 - www.plateruena.eus

Egunero zabalik. Menu bereziak,
egunekoak, taldeentzakoak eta
ospakizunak.

**Muxika**



ASTEI JATETXEA
Muniketa auzoa 8, MUXIKA
Tel.: 946 732 318

Bataioak, jaunartzeak, ezkontzak...
Enpresa bazkariak. Eguneko menua.

**Zornotza**



IBARRA SAGARDOTEGIA
Ibarra auzoa, z/g - ZORNOTZA
Tel.: 946 731 100

www.ibarra-sagardotegi.com

**Abadiño**



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburueto
menu bereziak. Goizetik pintxoak.
Giro oso ona.

Estetika gida

anboto

**Ile-apaindegia**



946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

**Ile-apaindegia**



IUNIK
ILEAPAINDEGIA
Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491

Gomendioak

Udazkeneko lehenengo hotzak ailegatu dira eta, aldaketa horren harira, komenigarria da azala zaintzeko aholku batzuk kontuan hartzea.

-Azala kanpotik eta barrutik hidratatu. Kanporako, nutriente ugari dituzten krema hidratanteak ematea komeni da, baita PHa orekatzen lagunduko duten garbiketa produk-

tuak ere. Barrutik hidratatzeko, ur asko edatea beharrezkoa da, litro eta erdi eguneko.

-Esfoliazio suabeak egitea, hildako zelulak ezabatzeko eta odol fluxua indartzeko.

-Antioxidatzaile askoko produktuekin elikatu. Barazkiak, fruta... batez ere zitrikoak. Bestalde, Omega-3 eta 6an aberatsak diren elikagaiak kontsumitu.

-Tabakoa eta alkohola saihestu.





Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA/NEGOZIOAK
- DENETARIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA/KIROLA
- FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak
ETXEBIZITZAK
ETXEBIZITZAK SALDU

Abadiño. Babes ofizialeko etxebizitza bat salgai. Abadiñon Muntsaratz eta Zelaieta artean. Bizitzen sartzeko prest. 85m karratu. Hall-a, 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, balkoia, garajea eta trastelekua. Tel.: 620-24 66 33

ETXEBIZITZAK ERRENTAN
HARTU

Durangaldea. Pisu bila nabil lurreta, Durango edo Abadiñon. Lana daukat. Tel.: 632-01 22 61

PISUA KONPARTITU
PISUKIDE BILA

Durangaldea. Neska arduratsua bazara eta Durangon pisu bila bazaude deitu telefono honetara. Tel.: 633-80 43 58

Lana Formakuntza
LAN ESKARIAK
ETXEO LANAK

Lan bila nabil garbiketan. Nikaraguako mutil bat lan bila dabil garbiketan. Arduratsua naiz eta beste edozein lanetan ere aritzeko prest nago. Tel.: 674-40 35 76

PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Garbiketan edo nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. Tel.: 602-54 40 61

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak zaintzen lan bila nabil. Kanpoko, barneko, gauetako, asteburueta zein ordukako langilea. Tel.: 631-26 50 03

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea lanaldi osoan, erdian, orduka, asteburueta zein gauze lan egiteko prest. Tel.: 622-50 47 11

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Pertsona arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea gauze, asteburueta, edo orduka lan egiteko prest. Tel. :631-92 55 25

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lane-tan ere. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 633-59 07 32

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea.

Tel.: 642-98 60 19

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Pertsona arduratsua lan bila dabil nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan lan egiteko prest. Tel.: 698-88 10 12

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 632-00 59 52

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nagusiak edo umeak zaintzen edo etxeko garbiketan. Kanpoko langilea orduka lan egiteko prest. Paperak ditut. Tel.: 674-49 61 13

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lane-tan ere. Barneko zein kanpoko langilea, gauze, asteburueta, orduka... lan egiteko prest. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 602-04 63 46

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko, ordukako zein asteburueta ko langilea. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 631-13 95 47

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko, barneko, gaueko zein ordukako langile eskarmentuduna. Tel.: 665-13 31 13

Umeak zaintzen lan bila nabil. Lan bila nabil umeak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel.:674-51 85 43

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil umeak edo nagusiak zaintzen. Baita garbiketan ere. Tel.:672-65 46 47

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume arduratsua lan bila nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketan ere. Barneko, kanpoko, ordukako edo gauetako langilea. Tel.: 631-89 17 09

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Emakume arduratsua lan bila dabil nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan edo ospitaleetan egoten ere. Barneko zein kanpoko langilea asteburueta lan egiteko prest. Berehala hasteko moduan. Tel.: 631-92 55 25

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona arduratsua nagusiak zaintzen lan egiteko prest. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Tel.: 698-69 61 94

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen etxe zein

ospitaleetan. Baita eraikuntzan edo mendiko lanak egiten ere. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 602-01 61 86

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen etxe zein ospitaleetan. Baita eraikuntzan edo mendiko lanak egiten ere. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 632-30 47 00

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Orduka edo kanpoko langile moduan. Erreferentziak ditut. Tel.: 651-50 86 94

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko langilea, gauze edo asteburueta lan egiteko prest. Tel.:688-86 07 79 Tel.:631-75 48 19

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen baita garbiketa lanetan ere. Gauze, orduka edo asteburueta lan egiteko prest. Tel.: 631-57 28 73

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsonak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Kanpoko zein barneko langilea gauze, asteburueta edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 632-93 76 13

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Berehala hasteko prest nago. Paperak ditut baita kurtso bat ere. Tel.:605-37 89 55

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak zaintzen lan bila nabil. Barneko, kanpoko, ordukako edo asteburueta ko langile moduan lan egiteko prest. Tel.: 631-71 70 41

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen barneko langile moduan. Erreferentzia eta esperientzia ditut. Tel.: 664-82 64 43

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil nagusiak zaintzen. Tel.: 698-50 53 89

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Durangon edo Elorrión lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Orduka lan egiteko prest. Tel.: 685-39 41 54

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Barneko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Tel.: 602-09 39 65

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Barneko zein kanpoko langile moduan

lan egiteko prest. Berehala lanean has naiteke. Tel.: 622-50 47 11

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Eskarmentudun langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Barneko zein kanpoko langile moduan lan egiteko prest. Tel.: 631-69 85 65

Adimen urritasuna duten umeekin lan egiten dut. Goizetan adimen urritasuna duen umeekin lan egiteko prest nago. Ordu-tegi malgua. Tel.: 625-39 02 48

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lane-tan ere. Lanaldi erdian edo osoan lan egiteko prest. Eskarmentua daukat. Tel.: 690-68 73 95

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil nagusiak zaintzen, etxeko lanak egiten edo ostalaritzan. Kanpoko zein barneko langilea, gauze, asteburueta, orduka... lan egiteko prest. Berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 631-71 70 41

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketan ere. Gauze lan egiteko ere prest nago. Autoa daukat. Tel.: 632-34 77 31

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Baita garbiketan ere. Barneko zein kanpoko langilea orduka lan egiteko prest. Tel.: 632-08 80 96

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Barneko zein kanpoko langilea. Erreferentziak ditut. Tel.:642659802

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 698-76 08 94

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Eskarmentudun langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen edo gar-biketa lanetan. Barneko zein kanpoko langilea, gauze zein lanaldi erdian lan egiteko prest. Tel.: 632-64 82 97

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea orduka lan egiteko prest. Tel.: 631-92 55 25

IRAKASKUNTZA

Klase partikularrak ematen ditut. Euskaldun irakaslea klase partikularrak emateko prest eta umeak zaintzeko prest. EGA eta ingeles tituluak ditut. Hainbat urteko esperientzia. Duran-galdea. Tel.: 692-71 66 19

LAN ESKAINTZAK
OSTALARITZA

Abadiñoko Abarketeruena tabernan sukaldaria behar da.

Menuan eta kartan esperientzia izatea baloratuko da

Bidali curriculuma: abarketeruena@gmail.com helbidera edo deitu 660 18 74 05 zenbakira.

PERTSONAK ZAINDU

Arratsaldez umeak zaintzeko pertsona baten bila. Gabonak bitartean arratsaldez 10 eta 7 urteko bi ume zaintzeko pertsona euskaldun baten bila gabilta, Durangon. Tel.: 649563492

Klase partikularrak emateko norbait behar dugu. 3 DBHn dagoen ikasle bati klase partikularrak emateko norbaiten bila gabilta Berrizen. Tel.: 663-39 75 88

Zaldibarko Zapatublai egitasmoan lan egiteko hezitzaile bila gabilta. Zaldibarko Zapatublai egitasmoan lan egiteko hezitzaile bila gabilta. 3-12 urte bitarteko haurrekin lan hezitzailea eta euskalduna burutu, haurrekin harremana sortu eta ekintza ezberdinak prestatu eta dinamizatzea da helburua. Kontuan hartuko da: Zaldibar edo ingurukoa izatea, aisial-dian esperientzia eta formazioa izatea, Euskara Gaitasun Agiria edo baliokidea izatea... Eskaintzen den lanaldia, hilean zapatu bi, 15:00etatik 19:30era. Curriculuma azaroaren 5ra arte aurkeztu ahalko dira sorkuntza@txatxilipurdi.com helbidera idatzita. Zalantzarik izanez gero deitu Tel.: 943-79 54 46

Elorrioko Gaztegunerako hezitzaileak behar dira. Elorrioko Gaztegunean lan egiteko hiru hezitzaile behar dira. Lanpostuaren ezaugarriak: Lan hezitzaile eta euskalduna burutzea, nerabezaro garaian dauden gazteekin harremank sortzea eta Gazteguneko dinamika kudeatzea. Beharrezkoa izango da: gutxienez, erdi edota goi mailako titulazioa izatea, EGA edo baliokidea eta gaiarekin lotutako formazio ikastaroak edukitzea. Ordukako lanaldia eskaintzen da, astean zehar koordinazio bilera bat eta bariku, zapatu eta domeketan 17:00etatik 20:30era. Kontratuaren iraupena azarotik ekainera arte. Curriculumak gazteak@txatxilipurdi.com helbidera bidali behar dira.

HAUXE BAI JENEROA!



@garbineubeda

EUSKARAZ EGIN, BIZI, SENTI. **EUSKARALDIA**

Botikak

BARIKUA, 2 - 09:00-09:00
ETXEBARRIA
Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**
ZAPATUA, 3 - 09:00-09:00
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**
09:00-13:30
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**
ETXEBARRIA
Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**
BAZAN DIAZ Urribarri 5 - **DURANGO**
BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**
SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**
DE DIEGO Intxaurrondo 22. - **DURANGO**
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**
NAVARRO Artekaleara 6 - **DURANGO**
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA
Berrio-Otxoa 6 - **ELORRIO**
EGUREN, ISABEL
Trañabarren 15. - **ABADIÑO**
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**
MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**
09:00-14:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**
09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**
DOMEKA, 4 - 09:00-09:00
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**
09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**
ASTELEHENA, 5 - 09:00-09:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**
MARTITZENA, 6 - 09:00-09:00
SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**
EGUAZTENA, 7 - 09:00-09:00
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**
EGUENA, 8 - 09:00-09:00
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**
09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion agurrekin batera.



Zorionak, **Auritz!** Oso ondo pasau gendulako zure urtebetetze egunean, horrela jarraitu! Muxu bat familia osoaren partez!



Lierrek eta Oierrek 6 eta 2 urte beteko dituzte. Zorixonak bihotz-bihotzez amatzoren eta aitatzoren partez. Patxo handi bana!



Zorionak etxeko txikienari! Oso ondo pasauko dogu gaur danok elkarrekin. Muxu handi bat familia osoaren partez, potxola!



Ingururuek konturetu barik beteko dozu dozenatxue. Ederra besteko erreza ixen da, 12 mosu zuretzat, **Uxue**



Azaroaren 5ean **June** Etxebarriak bost urte betetzen ditu. Zorionak, June, osaba Yosue eta Carmenen partez. Oso ondo pasatu!



Zorionak, **Nahia**, besarkada 'gigante' bat munduko alaba eta arreba onenai! Hurrengue elkarregaz ospatuko dogu, potzuen alde baten edo bestien. Beijos eta mosuek!



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarría

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{ Muruetatorre, 2C blokea, behe - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com



AINARA URRETA JAINAGA
OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ



Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

"Lurrean ezin dira bizi parapenteak emandako sentsazio eta bizipenak"

Lau urte dira parapenteagaz hegan egiten hasi zela, eta beste kirolek ematen ez dizkioten askatasuna eta emozioa ematen dizkiola nabarmendu du zaldibartarrak

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Umetatik gura izan du hegan egin izaskun Azpitartek, eta amets hori egia bihurtzeko aukera eman dio parapenteak. Udaberrian hasi eta udazkena heldu arte, aire-perspektiba hartzeko aprobeztatzen du zaldibartar honek.

Noiz hasi zinen parapenteagaz? Prestakuntza handia behar da?

Orain lau urte ikastaro bat hasi nuen Urduñako eskola batean. Ekipazioa nola erabili, nola aieratu, nola lur hartu eta hegan egiteko teknikak ikasi nituen. Oinarrizko nozioak. Ez da prestakuntza larregi behar, baina segurtasuna oso garrantzitsua da. Ondo ikasi behar da parapentearen funtzionamendua, eta garrantzitsua da ekipo osoa ondo prestatzea. Hegan ondo egiteko, kilometroak egiteko, gauza guztietan lez, praktikatu egin behar da, esperientzia hartu behar da.

Gogoan duzu lehenengo hegaldia?

Bai, Sopelan izan zen. Beldurra sentitu nuen, baina emozio itzela ere bai. Sentsazio nahaste bat izan zen.

Kirol minoritarioa da. Ez da ohikoa parapentean aritzea. Nolatan hasi zinen?

Kasualitatea izan zen. Interneten probatzeko aukera ikusi nuen, eta egun bateko ikastaro labur bat egin nuen. Gustatu egin zitzaidan. Txikitatik izan dut hegan egiteko desioa, gauzak goitik ikusteko nahia, eta ohartu nintzen hegan egiteko aukerarik errezena eta merkeena parapentea zela; independenteena ere bai. Ekipamendua hartu, mendira joan eta hegan egiteko aukera ematen du. Urteetan dabiltzanek diotenez, azkenaldian asko animatu dira parapentea praktikatzera.

Zu harrapatu zaitu. Zer du bada?

Nork bere kabuz, bakarrik, hegan egiteko aukera ematen du. Horrek ematen duen askatasuna, emozioa, ez dute beste kirolek ematen.

Ez duzu bertigorik izango.

Bai, badaukat! Mendian, eskalatz... izan dut. Baina hegan egiten ez dut bertigorik. Dena den, guk ez dugu amildegian behera jauzi egiten. Apurka-apurka, korrika eta haizearen laguntzagaz aieratzen gara.

Airetik nolakoa da perspektiba?

Zaila da azaltzea. Oso desberdina, ikaragarria. Haizea aurpegian, txoriekin hegan eginez...

Nolakoa da txoriekin elkarbizitza?

Oso ona! Txorien erreferentzia asko ditugu parapentean. Saiek lez planeatzen dugu, imitatu egiten ditugu. Korronte termikoa hartuta saiak biraka ikusten baditugu, hara goaz gu ere, beraiekin. Oso polita da. Trabatze beldurra sortu daiteke, baina ez da arazorik sortzen. Distantziak mantentzen dituzte.

Adrenalina askatzeko modu ona da?

Tentsio handiko kirola zein kirol oso lasaia izan daiteke parapentea. Hegaldi mota oso desberdinak daude. Egunsentian edo iluntzean, oso hegaldi lasaia egin daitezke. Aldiz, korronte termikoak hartuz egindako hegaldietan tentsio une handiak bizi daitezke. Altuera hartzeko erabiltzen ditugu korronte horiek, sarritan zurrunbilotsuak. Distantzia luzeagoak egin daitezke gero eta altuera handiagoa hartuta. Batzuek 300 kilometro egiten dituzte lur hartu barik, eta, topatutako baldintzen arabera, tentsio handiko hegaldiak izan daitezke. Hegaldi motak txandakatzeko aukera ere badago.

Zenbat kilometro egin dituzu zuk

Izaskun Azpitarte

Astobiza

Parapentean ibiltzen da
Zaldibar | 1983

gehienez?

60 inguru, zerbait gehiago. Munduko errekorra 600 kilometroan dago. Muturreko hegaldiak dira, profesionalki ari direnak egiten dituzte.

Haizea etsai ere baduzue?

Eguraldi txarra, euria dugu etsai. Parapenteak planeatzeko propietateak galtzen ditu bustiz gero. Euria, haize gogorra, ekaitza... oso arriskutsuak dira. Baldintza zehatzak behar dira hegan egiteko. Aieratzeko, haizea aurka b e h a r dugu, eta

indartsu joz gero hobe altuera handietara ez joan. Baldintzen arabera erabakiko dugu nora joan.

Izan duzu inoiz esperientzia txarrik?

Ez. Kolperen bat hartu dut txarto lur hartuta, haizea indar handiz sartu delako, baina ez dut susto handirik izan. Baldintza txarretan nahiago dut hegan ez egin.

Aieratzera animatuko zenuke jendea?

Gustatuz gero, noski. Esperientzia ederrak eskaintzen ditu. Komunitate txikia gara eta lagunak egiten

dira. Zaletasun berdina

konpartitzen dugu,

eta une onak bizi

daitezke. Jende

asko ezagutu

dut, bikoteki-

dea ere bai. Lu-

rrean ezin dira

bizi parapenteak

emandako sentsa-

zio eta bizipenak.

Lauhortza

Bixente
Aizpurua Eguren
Irakaslea



Adio udari

Aurten ere, data berdinean, heldu zaigu uda agurtzeko garaia. Eguraldiari dagokionez, nahiko gorabeheratsua izan dugu, baina egokitze gaitasuna daukagunez etekina atera diogu.

Orokorrean, uda oso aproposa da bidaiatzeko, eguzkia hartzeko, irakurtzeko, atsedena hartzeko, familia edo lagunekin egoteko, besteei laguntzeko eta, nola ez, herririk herri, jairik jai ibitzeko.

Toki honetaz baliatuz zoriondu eta eskertu nahi nituzke hiri, herri eta auzoetako jaiak antolatzen eta aurrera ateratzen dabiltzan guztiak. Orduak eta egunak ematen dituzte egitarauak prestatzen, baliabide guztiak egunerako prest izaten, bertaratzen diren guztiak egoki eta zuzen zerbitzatz, eta bukatzen denean dena batzen, garbitzen eta hurrengo urterako dena prest uzten.

Jai hauek mantentzeko ezinbestekoa da tokian tokikoen borondate ona eta inplikazioa. Ez baduzue honelako esperientziarik inoiz bizi izan animatzen zaituztet zuek ere lepoa eskaintzen. Lana izan arren oso aberasgarria da giro horretan murgiltzea.

Guk berrogei urtetik gora daramatragu, Elorrioren, Argiñetako Kofradiak jaiak antolatzen. Jai honen Kofradiak beste urte ditu, laurhun urte luze. Bertan, abuztuko lehen asteburuan, hirurogeiren bat ume, gazte, heldu eta nagusi elkartzen gara jaiak aurrera eramateko. Askok urtean zehar ez dugu bat egiten eta bertan elkartzen gara eta beti ateratzen dugu tartetxo bat gure joan-etorriak kontatzeko. Benetan polita.

Urteak joan ahala pertsonak aldatzen doaz, baina enborrak tinko dirau historiari eta ohiturei jarraipena ematen eta dena Aitorren hizkuntza zaharrean.

Anima zaitetzte zuen inguruko jaietako parte izaten eta aukerarik ez baduzue etor zaitetzte Argiñetara, besoak zabalik hartuko zaituztegu. Eutsi jaiet!



Bodegas *Launa*
Arabar Errioxa

info@bodegaslauna.com / Tel.: 946 824 108
www.bodegaslauna.com

2017
PEÑIN GIDA
93 puntu

Gidako Errioxako
kriantzarik onena

